

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Eguraldiaz mintzatzea,
kultur jarduera

Kepa Diéguez Barahona

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea eta sailkapena Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza	505
---	-----

VARIA

<i>In memoriam.</i> Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025) Ekaitz Santazilia	543
---	-----

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	551
--	-----

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera

Hablar del tiempo atmosférico, tarea cultural

Talking about weather, cultural activity

Kepa Diéguez Barahona

Ikertzaile beregaina

kepa.diegez@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0003-2390-251X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.1>

Jasotze data: 2024/11/06. Behin-behineko onartze data: 2025/05/11. Behin betiko onartze data: 2025/10/05.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Aroaz mintzatzea, eguneroko jarduera, ez da hutsala: kultur ekintza aparta da, hiztunak bere baitan dauzkan hizkuntza- eta kultura-tresna guztiak abian jartzen baititu, zenbaitetan oharkabea, baina beste zenbaitetan ohartuki. Hori azaltzeko, lehen-dabizi, kulturaren kontzeptuaren nondik norakoaz jabetzeaz gain, hizkuntzaren eta kulturaren uztardura zertan den adierazten da, etnolinguistikaren ildo egokiena dela ikertzeko agertuz. Jarraian, azaltzen da eguraldia hizpide izanda hiztunen adimen-be-giak nolako nozioak sortu dituen. Sailkapen etnolinguistikoa ematen da jasotako ter-mino guztien berri, alderdi kulturala eta kognitiboa kontuan harturik. Azkenik, zen-bait ondorio plazaratzen dira.

Gako hitzak: eguraldia; lexikoa; etnolinguistika; kultura; kognizioa.

RESUMEN

Hablar del tiempo atmosférico, una actividad cotidiana, no es algo trivial; es un acto cultural destacado. Se activan todas las herramientas lingüísticas y culturales que se poseen, algunas veces de manera inconsciente, pero otras de manera consciente. En primer lugar, se profundiza en el concepto de cultura y de su fusión con el lenguaje, demostrando que el enfoque etnolingüístico es el más adecuado para investigarlo. Seguidamente, se describe cómo el tema del tiempo ha generado ciertas nociones en la mente de los hablantes. Se proporciona una clasificación etnolingüística de todos los términos recogidos, primando los aspectos culturales y cognitivos para llegar a ciertas conclusiones.

Palabras clave: tiempo atmosférico; léxico; etnolingüística; cultura; cognición.

ABSTRACT

Speaking about the weather, a daily activity, is not trivial: it is a unique cultural act, as the speaker activates all the linguistic and cultural tools they possess, sometimes unconsciously, but sometimes consciously. To explain this, we first delve into the concept of culture and the fusion of language and culture, demonstrating that the ethnolinguistic approach is the most suitable for investigation. Then, we explore how discussing the weather has shaped certain notions in the minds of speakers. An ethnolinguistic classification of all the collected terms is provided, taking cultural and cognitive aspects into account. Finally, some conclusions are presented.

Keywords: weather; lexicon; ethnolinguistics; culture; cognition.

1. SARRERA. 2. EREMU ETNOLINGUISTIKOA. 2.1. Kultura zertan den. 2.2. Lexikoa zertan den. 2.3. Kulturaren eragina lexikoan. 2.4. Hizkuntza eta kognizioa. 2.5. Zientzia eta lexikoa. 3. EGURALDIAREN EGOERA HIZPIDE IZATEA. 4. SAILKAPEN ETNOLINGUISTIKOA. 4.1. Eguraldia bera izendatzeko terminoak. 4.2. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den. 4.3. Eguraldiari buruzko jarduerak. 4.4. Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia. 4.5. Nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak. 5. ONDORIOAK. 6. LABURDURAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Artikulu honetan aditzera emango da norainoko garrantzia daukan kulturak lexikoaren eraketan. Ez dago aditurik hizkuntza eta kultura banaezinak direla ukatzen denik: hizkuntzak kulturari eragiten dio, eta kulturak hizkuntzari. Elkarrekin bizi dira, eta elkarri eragiten diote: hizkuntzalaritzaren ildoan artean, etnolinguistikak jorratzen du hobekien hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztardura (Martin Camacho, 2016). Elkarrekintza hori argitara emateko, eguraldiaren lexikotik, harexetaz mintzatzea hautatu da elkarren beharrian hori ezin hobekiago islatzen da eta. Ezbairik gabe, mintzaira baten lexikoan ispilatzen da hizkuntza-komunitate baten kultura; halabeharrez, adierazi egin behar da. Nolanahi ere, harreman hori ulertzeko bidea ez da samurra, malkar samarra da, eta horretarako, segidan, urraspidearen berri emango da, irakurlea harreman horretaz era egokian jabetuko bada. Ez da dirudien bezain gaitza, aukeratzeko bidezidorra aproposa bada. Metodologia etnolinguistikoa sakondu nahi duenak jotzea dauka egileak urtaroei buruz egindako azken artikulura (Diéguez, 2024). Hantxe azaltzen da luze eta zabal nola sailka daitezkeen datu linguistikoak etnolinguistikaren arabera.

Lehenengo eta behin, kulturaren eta lexikoaren barne-muinak azaleratu behar dira, zer den kultura, zer den lexikoa; izan ere, hori zedarritu gabe, nekez ulertuko da artikulu honen mamia. Behin kontzeptu horiek xehatuta, aztertuko da nola eragiten dion kulturak lexikoari, nolako hazkurria ematen dion, nola eguneroko bizimoduak, ekanduek eta azturek ziprztintzen duten lexikoa, nola ematen dituzten osagaiak hizkuntza baten lexikoa eraikitzeke: motor sendo, errime eta gotorra dugu kultura.

Aurrerago azalduko da eguraldiaren egoera hizpide izatea ez dela gizakion jarduera txatxarra; aspalditxotik transmititutako jakintzaren bitartez, kontu sozial eta kultural ugariren berri ematen da oharkabeen. Baina, jakina, ez dago lexikoaren eta kulturaren arteko azterketa sakonik, hitz-corpus zabal eta sendo batez baliatu ezean. Gaur egun, corpusak¹ erabiltzea aski ataza erraz bilakatu da Interneti esker: ia oro daukagu amarauneari, eta horrek ikertzaileari lana ikaragarri errazten dio.

Guztiarekin ere, egin beharreko lana ez da nolanahikoa, xehe-xehe, goitik behera, miatu behar dira corpusak taxuzko ondorioetara iristeko. Zerbait ahazteak sistema guztia aldarazten du. Arakatze hori eginda, jasotako eguraldiaren gaineko herri-kontzeptuak azalduko dira.

Aipatu bezala, horrainoko bidea malkar samarra izango da, baina ordurako nahiko zelaituta egongo da: herri-kontzeptuez baliaturik, sailkapen etnolinguistikoa egingo da, betiere, kulturak lexikoan daukan eragina nabarmenduz, hau da, anabasa dirudien herri-berbategia ordenatu egingo da irizpide etnolinguistikoen bitartez. Hasteko, eguraldia bera izendatzeko terminoak azalduko dira; horren baitan, eguneko eguraldia nola adierazten den aztertuko da. Segidan, zer den klima eta zer den eguraldia (sarritan nahasten dira), eta klimari nola irizten zaion.

Lehendabiziko atal hori urraturik, eguraldia nola dagoen eta nolakoa den adierazteko hitzak eta esapideak azalduko dira, aipatu bezala, hizkuntza eta kultura uztartuz. Segidan, nolakotasun horren barruan, lehenengo eta behin, eguraldi on eta egokia nola izendatzen den aztertuko da, eta, jarraian, ifrentzua, eguraldi txarrari nola irizten zaion.

Baina, eguraldi kontuetan, denak ez dira izenak eta izenondoak bakarrik, jarduerak ere izaten dira, eta hori dela eta, ikuspegi etnolinguistikotik esapideak eta esamoldeak ere aztertuko dira. Jarduerak banan-banan xehatuko dira, irakurleak aiseago ulertu ditzan.

Horrenbestez, dagoeneko koadroa ia osorik margoturik dugu, baina kontu garrantzitsu bat falta dugu: egoerei edo aldiei lotutako eguraldia tarteko, zein izen, izenondo eta esapide erabiltzen diren han-hemenka. Eredu horretan bikain islatzen da kulturaren eta lexikoaren arteko harremana. Osagarri gisa, eguraldia asmatzeko egunen gaineko izendapenak azaltzen dira.

Azkenik, bidezidor guztia urraturik, zenbait ondorioren berri ematen da, egindako bidea argiago gera dadin. Ziurrenik, ordurako, irakurlea bere ondorioetara iritsita

1 Iturri nagusiak honako hauek dira: DVEF, *Diccionario Vasco Español-Francés* (Azkue, 1905-1906/1969); DRALV, *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca* (Akesolo et al., 1991); EH, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*; EHHA, *Euskal Herriko Hizkeren Atlas* (Euskaltzaindia, 2008) eta OEH, *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mitxelena & Sarasola, 1987 – 2005). Azken honek ezin konta ahal liburu eta ikerlan biltzen ditu bere baitan. Mokoroaren ikerlana ere nabarmendu behar da, hala nola Iñaki Gaminderen Bizkai aldeko lana eta Joxe Landak *Gara* egunkarian egindako aro-iragarpenak.

egongo da, baina berriz gauza bera diogu: zoragarria da eguraldi-kontuetan euskararen narotasuna, eta zorigaitzez, euskarari berari osoki hartuta gertatzen zaion bezala, lexiko-higadura gero eta latzagoa da.

2. EREMU ETNOLINGUISTIKOA

2.1. Kultura zertan den

Kulturaren definizioan sakontzeko, egin daitekeen biderik labur eta errazena euskararen hiztegi-tara jotzea da, *kultura* nola definitzen duten aintzat hartzeko; adibidez, hau bazter utziko dugu: «gizaki baten jakintza eta ezagutza, ikastearen, irakurtzearen, bidaien, telebistaren, ikus-entzunezkoen, sare sozialen eta abarren bitartez». Hori ez dugu inongo hiztegitan aurkituko, baina *vox populi* izaten da. Horrelaxe ulertzen du jende askok kultura. Ez daukagu euskaraz hitzen definizioa ematen duen hiztegi askorik, baina dauzkagunetan sakondurik, bat egiten dugu honako definizio hauekin:

Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoa; gizakiak gizartean ikasten dituen jokamoldeen multzoa, herentzia biologikoaren bidez hartutakoari kontrajarria (*Harluxet* hiztegi entziklopedikoa).

–Gizarteetan, ikasten diren jokamoldeen multzoa; herri edo zibilizazio baten buru-lanaren emaitzen multzoa (EH).

Definizio horiek aztertuz gero, funtsezko ezaugarriak azaleratuko dira: *kultura*, lehenik, bi esparru handiren inguruko errealtate-multzoari dagokio: immaterialari buruzkoa (izaera espiritual, psikiko edo mentalagatik), eta materialari buruzkoa. Ondorioz, kulturaren emaitzak immaterialak zein materialak izan daitezke, berez naturari kontrajarriak. Natura da gizakiari berez dagokiona, gizakiak berak esku hartu gabe, alegia, dela izaki gisa dagokiona (gorputza, organoak, gogoa...), dela ingurumenari dagokiona (lurra, ibaiak, izakiak...); kultura, oster, hauxe izango litzateke: gizakiak naturari eragitean landu eta egindako produktuen multzoa, gorputzez zein gogoz jardutean (Casado Velarde, 1988, 11.-12. or.). Adibide xume eta erraz bat: arrautza bat, berez, natura da, oiloak errundakoa; baina jateko frijituz gero, kultura izango da, produktu kulturala da, natura eraldatu dugu eta; transformazio-prozesua jasan du. Hortaz, arte guztiak kultura dira, nolabait, natura eraldatzen saiatzen baitira. Gure artikularen muinera etorrira, eguraldiaren herri-eremua edo eremu etnometeorologikoa, aipa dezagun *mataza* artilez osatutako multzoa dela, «euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria» (EH), baina elur-maluta (handia) adierazteko erabiltzen badugu, prozesu kultural baten ondorioa da, irudi batez, nolabait, natura eraldatu baitugu metafora baten bitartez. Eguraldiari buruzko lexikoa metafora eder ugariz osaturik dago. Prozesu kognitiboen bitartez garatzen dira hizkuntzen lexikoak. Hiztunek hizkuntza baten lexikoa garatzen dute adimen-begiaren bidez: irudi-multzo egituratua eratzen dute. Palmer-ek (2000) egindako

ikerlanean adimenaren iruditeria² jotzen du ardatzat hizkuntzak eta kulturak iker-tzean: «hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzezko sinbolo-jokoa da. Adime-naren begiaz, *mind's eye*, ikusten duguna da iruditeria, eta osterantzeko sentsazio eta sentipen batzuk». Haren ikuspegiaren arabera, «irudikatzen duguna pertzepzio-forma guztien bidez lortutako esperientzietan oinarrituta dago, eta, gainera, hitz egiten dugu» (Palmer, 2000 apud Diéguez, 2021, 34. or.). Joera bertsukoa da ikerlan honen izenbu-rua: «Hablar y pensar, tareas culturales» (Velasco, 2003); mintzatzea eta pentsatzea kultur jarduerak dira, eta eguraldiaz mintzatzea ere, inolako zalantzarik gabe, kultur jarduera dugu. Ezagun da hizkuntzen eremu batzuen lexikoa natura eraldatzeagatik sor-tzen dela, hots, kulturaren eraginez produktu kulturalak gauzatzen dira; nahitaezkoa da kulturaren eta hizkuntzaren arteko uztardura, hizkuntzak aurrera joango badira.

2.2. Lexikoa zertan den

Kulturaren nondik norakoa ezarriz gero, azter dezagun nola ulertzen dugun lexi-koa ikuspegi etnolinguistikoaren arabera. Hizkuntza baten lexikoa hitzez ez ezik, atsotitz eta esapidez ere osaturik dago, Coseriuk (1977, 113.-118. or.) *diskurtso errepikatua* deitu zuena; izan ere, *elur* hitza zein *Goiz gorri*, *arrats euri* atsotitza eguraldi-lexikoaren atalak dira. Ezbairik gabe, hizkuntzalaritzaren eremuetan, lexikoarenean zuzenen eta garbien hautematen da kulturaren eragina. Hizkuntza baten lexikoa, eta gure kasuan eguraldiarena, aztertzeke, jardunbiderik egokiena etnolinguistikak ematen du hizkuntzalaritza kognitiboaren laguntzaz, egileak bere tesian frogatu zuenaren arabera (Diéguez, 2021). Metodo etnolinguistikoa oinarri eman zuen argitara egileak nolako prozesu kognitiboak gertatzen diren hitzunen garunean adimen-begiaren bidez; adibidez, zertan oinarritzen diren zenbait hitzun euri xehe-xeheri deitzeke: *euri-langarra*, *kuku-izerdia*, *aixaixak bustitzeke euria* eta abar. Hitzunek, gehienbat, metaforak eraiki izan dituzte errealitatean atzeman dituzten zenbait ostagi³ izendatzeko.

2.3. Kulturaren eragina lexikoan

Alderdi ugaritan azpimarra daiteke kulturaren eragina lexikoan; hori dela eta, era-gin hori era askotara azter daiteke. Besteak beste, haxe nabarmenduko dugu (Martín Camacho, 2016, 198.-202. or.).

Lehenengo eta behin, inguruneak eragiten dio lexikoa eraikitzeari: lexikoa inguru-nearen arabera eratzen bide da. Hizkuntza oso gida baliotsua da jakiteko nola gizar-teak egokitu eta moldatzen diren beren ingurune natural, sozial, material eta naturaz

2 Adimen-iruditeria adimen-begiaz ikusten duguna da, Palmerren esanetan. Erdarazko itzulpenean «imaji-neria» eta «ojo de la mente», hurrenez hurren.

3 *Ostagi* berba Azkuek asmatu zuen «fenomeno atmosferikoa» esateko. Beste batzuetan, *egurasketa* erabili zuen. Ez zuen arrakastarik izan, eta guztiz ahaztu zen; izan ere, behin baino ez zuen berak erabili *Euskale-rriaren yakintzaren* laugarren liburukian, 205. orrialdean, ostadarraren izendapenen berri eman zuenean: «Lan onen lenengo liburuan, [...] bekuski irakurleak ostagi onen [ostadarraren] beste amazapi izen» (Azkue, 1935-1947/1989).

gaindikora (Morant Marco & Díaz Rojo, 2005, 10.-16. or.). Horrela bada, hitz eta esapide ugari islatzen dute nola taxutu eta interpretatu duen gizarte batek hizkuntza jakin bat. Beraz, natura, giza harreman eta sinesmenen elementuak –mitologia ahaztu gabe– izendatzen dituzten berbak, kulturak arlo horiek interpretatu dituen moduaren ondorioak dira.

Ingurunearen eraginaz gain, lexikoa bereizketa semantiko ugari azaleratzen dira (Casado Velarde, 1988, 68.-69. or.). Oso ohikoa da baieztatzea komunitate baten kulturaren alderdiak, gizabanakoen bizimodurako berebiziko garrantzia daukatenak, bereizketa lexikoak sortzen diren gunen bihurtzen direla. Bereizketa horien bidez, hizkuntzak alor jakin batzuen interpretazioa zehaten du; adibidez, italierak pastari deitzeko hitzak edo nola sortu duen armak izendatzeko lexikoa AEBko ingelesak. Euskarari dagokionez, bereizketa semantiko ugari dira ostagiak desberdintzeko. Ez da artikulu honen helburua, baina euri motak bereizteko, han-hemenka, Euskal Herrian barrena, ehunka berba dauzkagu (Diéguez, 2021).

Esan gabe doa, kultura bilakatuz doan heinean, lexikoa ere bilakatuz doala. Horrela, kultur aldaketek lexikoari eragiten diotela azter dezake ikerketa etnolinguistiko batek eta, era berean, nola agertzen diren hitz berriak eta nola galtzen diren beste hitz batzuk. Etnometeorologiaren esparruan, zalantzarik gabe, zientzialarien iritziz gertatzen den eguraldi-aldaketak ezinbestez eragiten dio berbak erabiltzeari; izan ere, gal litezkeen fenomeno batzuei dagozkien hitzak ezari-ezarian lozorroan eroriko dira, ez baitira beharrezkoak: beharrezana nolako, hitzak halako. Agian, inoiz, norbaitek iratzarriko ditu berriz ere hitz horiek.

Lexikoa inguruko kulturari erabat atxikita dagoelarik, komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla da. Alderdi hori garrantzi handikoa da. Maiz baieztatu izan da hitz batzuek giza komunitate baten oso alderdi intimoak adierazten dituztela. Euskarak fenomeno zehatz bati deitzeko hitz elkartu jakin bat erabiltzeak eman lezake aditzera zein ote den gizarte baten «ideologia» edo bizitzarekiko ikuspegia (Barthes, 1971). Eremu etnometeorologikoan ugari dira eratutako metaforak, oso sinbolismo aberatsa sorturik; esaterako, *izotz-burruntzia* hitz elkartuaren bigarren osagaiak islatzen du euskal hiztunaren pentsamoldea, nekazaritzari lotua, lan egiteko tresnei uztartua (Diéguez, 2021). Beraz, «izena den guztia omen da» deritzon euskal esapidea, ikuspegi hermeneutiko batetik begiratuta, «hizkuntzak errealitatearen giza esperientzia eta bizipen guztiak antolatzen ditu; ondorioz, errealitatearen eta gizakiaren arteko elkarrekintza adierazi eta irudikatzen da izenean, eta, izena aipatzean, elkarrekintza hori eratu eta interpretatzen da» (Ortiz-Osés & Garagalza, 2006, 54. or.).

Hitzen etimologia arrunt arlo labana delarik ere, ikertzearen ikertzeaz, antzinako kultur egintzak argitara eman ditzake, behialako gizarte baten egituraren berri eman dezake. Kontu handiz egin beharreko lana izanik, arduraz eginda erraztu dezake kulturaren ezkutuko datuak deskubritu eta azaleratzea; esaterako, *ostots* terminoa *ortz(i)* + *hots* berben bat egitetik bide dator, hau da «ortziko hotsa». Uler bedi *ortzi* lurraren gaineko zero oso gisa. Horrelako eleak eta hitz elkartuak xehatzeak eman litzake eremu batzuetan oso ondorio adierazgarriak.

Etimologia ez ezik, maileguak jaso eta aztertzeak ere gizarteak erabili eta ezartzen dituen kulturarteko ezagutza-iturriak azal litzake. Horrek ere eman lezake, ezbaierik gabe, euskararen kulturarteko harremanen berri. Zenbaitetan lexikoaren eremu batzuetan egon litezkeen hutsune semantikoak betetzera etorri izan dira, baina beste zenbaitetan bi hizkuntzaren arteko harremanen isla besterik ez dira. Esaterako, *enbata* eta *galarrrena* hitzak erabiltzen dira fenomeno bera izendatzeko, eta biak maileguak dira, itsasoan lanean jardun duten arrantzaleek ekarritakoak, beste hizkuntza batzuen hitzunikiko harremanen ondorioz. Beraz, giza harremanek ahalbideratzen dute lexikoaren ondarea ugaltzea.

2.4. Hizkuntza eta kognizioa

Prozesu kognitiboak ulertzea ere biziki emankorra izan liteke hitzen eragina gizabanakoaren pentsamenduan aztertzean, etnolinguistikaren xedeetarako bat baita, gaur egungo hizkuntzalaritza kognitibora hurbilduz (Ibarretxe-Antuñano & Valenzuela, 2021). Horretarako, Sapir-Whorf deritzon printzipio istilutsu askoa dugu, hainbat hauts harrotu zuena. Hizkuntzak pentsaerari eragiten ote dion hipotesia frogatzen saiatu ziren Sapir (1921/1962) eta Whorf (1956/2011). Nahiz ideia hori garai hartan berria izan ez, Benjamin Lee Whorfek, Edward Sapirren ideia interesgarriak oinarritzat harturik, beste era batera lotu zion aferari. Whorfek eman zuen aditzera hizkuntza bakoitzaren sistema linguistikoa ez dela ideiak adierazteko sistema erreproduzitzaile huts-hutsa, baizik eta sistemak berak gizabanakoaren ideiak eratu eta itxuratu egiten dituela, hots, gidari duela adimenaren jardueretarako eta inpresioak aztertzeako. Antza denez, gure mintzairek finkatzen dituzten arauak lagun, natura atalkatu egiten dugu. Whorfek garatutako erlatibismo linguistikoa hiru adierazpenetan azaltzen da: lehenengo, erlatibista hutsa da, eta agertzen du bestelako mintzairen berbadunek mundua bestela eratzen dutela, hots, mundu-ikuskera desberdina daukatela. Bigarrena, determinista da, hizkuntza ez da komunikatzeko tresna hutsa, pentsamendua determinatu egiten du. Hirugarrenak aniztasun linguistikoa aldarrikatzen du, eta aurreko biak baino lehenagokoa da. Gizabanako eta komunitateen jokabide linguistikoaren aldakuntza izan liteke norma. Aniztasuna izan liteke norma (Diéguez, 2022).

2.5. Zientzia eta lexikoa

Bestalde, esparru jakin bateko lexikoa aztertzeak ondorio zientifiko zinez interesgarriak eman litzake, beste zientzia batzuen osagarri. Eguraldiaren herri-lexikoa azterturik antzeman daiteke nola bilakatzen den Euskal Herriko klima. Aipatutako faktore eta ondorio hauek aintzat harturik, hau da, nola eragiten dion inguruneak lexiko etnometeorologikoari, kultura aldatu ahala lexikoa bilakatuz doala, eta lexikoa izaten dela komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla, hauteman daiteke herri euskaldunetan klima bilakatuz doan heinean, era berean lexikoa aldatuz doala (Diéguez, 2021). Begi-bistan dago klima-aldaketak lexikoari eragiten diola: zenbait berba ahanzturaren zorroan edo, kasurik onenean, lozorroan, jausten dira, eta beste batzuk sortu, gaur egun, oro har, eta salbuespenak salbuespen, maileguak edota desegoki eratutako hitz elkartuak eta ikuspegiak; adibidez, *urdingune* ostartea izendatzeko.

3. EGURALDIAREN EGOERA HIZPIDE IZATEA

Ur handi samarretan murgildu baino lehen, meteorologia-zientziaren ikuspegitik eguraldia eta klima bereiztea komeni da; eguraldia eguratsaren egoera zehatza da, unekoa; klima, ordea, lurralde bateko egurats-giroaren eta eguraldiaren ezaugarri multzoa, gutxienez 50 urtean jasotako datuetan oinarritua.

Ezin uka daiteke lagunen arteko solasaldi bati ekiteko eguraldia aipatzea dela bitartekorik ezagunena. Aspaldixotik eguraldia hizpide izateak bete izan du (Jakobson, 1963) funtzio fatikoa edo erlazonala deitu zena: igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio-kanalera bideratuta dago, eta elkarrizketa bat hasi, luzatu, eten edo amaitu nahi du, edo, besterik gabe, kontakturen bat dagoen egiaztatu. Informazio-edukia urri samarra da, eta agurtzeko modu gisa erabiltzen da. Funtzio fatikoaren helburua ez da nagusiki informazioa ematea, baizik eta kontaktu soziala erraztea, gero eduki handiagoko mezuak transmititu, eman eta optimizatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, eguraldiaz beraz mintzatzeak, zenbaitetan, funtzio fatikoa badu ere, beste zenbaitetan ez da horrela izaten, eta hitzen eta esapideen bitartez kontu kultural eta sozial ugariaren berri eman daiteke.

Lehenik, hainbat hiztegi, liburu eta corpusetan arakatuta (ikus 1. oin-oharra), emango da herri-ikuspegiaren araberrako hitz eta esapideen sailkapena. Hiztunek beheragoko kontzeptuak erabiltzen dituzte eguraldiaren berri emateko, aroarekiko irudipenak. Kontzeptu batzuk, jakina, eztabaidatzekoak dira, batik bat eguraldi «on» eta «txar»-aren ingurukoak, egokia edo ala desegokia ote den... gaur egun aisialdiari uztartuagoak lanari eta nekazaritzari baino. Hauek dira bildutako herri-kontzeptuak:

- Eguraldia izendatzeko hitzak
 - Egunekeo eguraldia
 - Klima
- Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den
 - Aldakorra
 - Beroa
 - Busti-lehorra
 - Edonora joateko edo inora ere ez
 - Egokia
 - Euria ekartzen duena
 - Euririk gabea

- Euritsua
- Ez eguzkitsua, ez euritsua
- Ezohikoa eta oso beroa
- Garbia
- Goibela
- Hezea
- Hotza eta lainotsua
- Lainotua
- Lasaia (oso)
- Lehorra
- Nahasia
- Osasuntsua
- Ziurtasun gabekoa
- Ona eta egokia
- Txarra, gaiztoa eta desegokia
- Eguraldiari buruzko jarduerak
 - Lagun eta aldekoa izatea
 - Eguraldiak hobera egitea
 - Eguraldiak txarrera egitea
 - Eguraldia aldatzea
 - Eguraldia epeltzea
 - Eguraldiak zein itxura hartu
 - Eguraldi txarrak bat-batean harrapatzea

- Eguraldia eta urtaroa bat ez etortzea
- Eguraldiak egonkor irautea
- Eguraldiaren joera adieraztea
- Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia
 - Aldiak
 - Gaueko eguraldi gozoa
 - Gaueko eguraldi txarra
 - Nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa
 - Ibiltzeko
 - Jateko
 - Kanpoan egoteko
 - Lo egiteko
 - Sutondoan egoteko
- Lan-jarduerak egiteko eguraldi ona
 - Belarra mozteko
 - Ereiteko
 - Lan egiteko
 - Mahatsa biltzeko
- Urte barruan nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak
 - Urtarrilaren lehenengo hamabi egunak
 - Otsailaren lehenengo hamabi egunak
 - Abuztuaren lehenengo hamabi egunak
 - Abuztuaren lehenengo hogeita lau egunak

4. SAILKAPEN ETNOLINGUISTIKOA

4.1. Eguraldia bera izendatzeko terminoak

Sei hitz bide dauzka euskarak eguratsaren egoera adierazteko: *aro*, *bedaro*, *denbora*, *eguraldi*, *giro* eta *sasoi*. Bakoitzak bere berezitasunak badauzka ere, testuinguru jakinetan baliokidetzat har daitezke. Esan gabe doa aldaerak ugari direla, eta hemen bakar batzuk baino ez direla jaso, ikuspegi orokor bat ematearren⁴. Jarraian azaltzen diren berba gehienak OEHN dauden arren, interesgarritzat jotzen da jatorrizko sorburua aipatzea, batik bat ahozkoa denean; esate baterako, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA).

Ezaguna da, oso, *aro* hitzaren eremu semantikoa: denbora adieraztetik, atzizkia ere bada, eguraldia adierazteraino. Biziki emankorra da izen zein atzizki gisa: «Erdi Aro»; «aro latz»; «urtaro». Ikusiko dugunez, eguraldi-kontuetan ere aski emankorra da; adibidez, hurrengo elea: *bedaro*. Gehienetan *aro* berbak eguraldia bera adierazten du, baina Azkuek jasotako adiera batean, hiztunaren adimen-begiak bestela hautematen zuen eguraldiaren egoera: itsasoari lotzen zion, eta txarraldiaren ondoren, eguraldiak hobera egitea esan nahi zuela adierazten zuen. Jarraian, jasotako corpusa ematen da ezagutzera hitza testuinguruan aiseago uler dadin.

Aro

aho: zuberera. Harriet (OEH).

ao: Z-Altzai (EHHA).

aro: B-Lemoa (EHHA). «Aro ona dau». «Aro ona dau ibiltzeko nai solorako nai beste gause baterako» B-Jatabe (Gaminde, 2002). *Término de mar, mejora o embellecimiento del tiempo después del malo* (DVEF).

au: Z-Pagola, Sohüta (EHHA).

ha(r)o: Z-Santa Grazi (EHHA).

Bedaro hitza OEHN jasota dago «eguraldi ona dela belarra mozteko», hots, *belar/bedar* + *aro*. Aipatu bezala, hemen -*aro* atzizki gisa. Hala ere, *eguraldi* berbaren baliokide gisa ez da azaltzen, baina, bai EHHAn Zuberoako hiru herritan, gutxienez. *Bedau* ahoskatzten dutelarik ere, ezbairik gabe *bedaroren* aldaera da. Hiru herri horietan *egünaldi* eleaz ere baliatzen omen dira; beraz, *bedau* aldaera galzorian egon liteke, *egünaldiren* alde.

Bedaro

bedau (egünaldi): Z-Altzürükü, Larraine, Montori (EHHA).

Ondoko erdaretan gertatzen den bezalaxe, euskaraz denbora eta eguratsaren egoera hitz berbera baliatzen dute hiztun askok: *denbora*. Euskal Herrian, han-hemenka, aldaera ugariarekin egiten dugu topo, eta zenbait herritan bizpahiru ele elkarrekin bizi dira: ez da inongo desberdintasunik sumatzen, bata zein bestea erabiltzen dute, Lekeitioko adibidean bezala: «Lekeition eguraldia nahi denporea erabilten dira gauza bera esateko».

4 Corpus zabalagoa nahi duenak jo beza *Orotariko Euskal Hiztegira* (OEH).

Denbora

denbora: G-Oñati (Izagirre, 1971).

denpora: B-Lekeitio «Lekeition eguraldia nahi denporea erabilten dira gauza bera esateko». «Denpora zantarra = Eguraldi txar-txarra». *Lekeitioko Berbak* 2. «Itxostxoridxe urtetan badere errire, guk ametik askotan ikusten dus, denpora txarra dator, orrek denporalie dakarre, orrek a min deuke, itxosoan min deuke orrek». B-Bakio (Gaminde, 1999).

tenbora: N-Gaintza (EHHA).

tenpra: erronkaria. «Odeiak Jakara, tenprak kakara». «Mendiak egiten deinean sonu, tenprak euri barrontatan du» (Estornes, 1997).

Eguraldi hitza gailendu da batez ere euskara batuan. Egia da ezagun samarturik dela Euskal Herri osoan, eta, agian, *denbora* ≠ *eguraldia* bikotea bereiztearren, erabat zabaldu da hedabideetan. Nolanahi ere, gogorarazi behar da *eguraldi* berbak denborarekin daukan zerikusia, ezen, azken batean, «egunaren aldia» besterik ez baita. Ezaguna da antzinako hitzetan *-n -r* bihurtzen zela atzizkiak hartzean, ahoskatzearen mesede; adibidez, *oihan + zabal* > *oiharzabal*. Ez dirudi adiera berezirik daukanik *eguraldi* hitzak, baina hitzun batzuek, non entzunda ezin esanda, «denbora ona» adierazteko baliatzen dute: «Gaur *eguraldia* dago». Beste batzuek, aldiz, beherago ikusiko den bezala, «eguneko eguraldia» aipatzeko baliatzen dute. Hala eta guztiz ere, gaur egun hedatu egin da «eguraldi ona» eta «eguraldi txarra» esatea, izenondo eta guzti.

Eguraldi

ebeldi: N-Etxarri (Larraun) (EHHA). «Beste zelan dau izena eguraldiak?, Egualdia, egualdia ta ebeldia». *Euskaltzale*, 1897, 27. or. (DRALV).

egoaldi: bizkaiera. «Berakatz eta kipulak egoaldi oanagaz atara». *Arantzazu Egutegia*, 1962-06-01 (DRALV).

egoialdi: «Egoialdiak negu antza. Euri otza ugari oraindik aurrera». *Arantzazu Egutegia*, 1960-XI-01 (DRALV).

egualde: N-Igoa (EHHA).

egualdi: «Beste zelan dau izena ‘eguraldiak’? – “Egunaldia” “Egualdia” ta “Ebeldia”». *Euskaltzale*, 1897, 272. or. «Egualdi ona, zeru garbia, izarratu ederra...» D. xAgirre, *Euskaltzale*, 1897, 67. or. (DRALV).

egueldi: goi-nafarrera. «Alolako egueldie daukagu» (Intza, 1927, 1928 eta 1974).

eguraldi: eguratsaren egoera (EH).

egünaldi: Z-Altzai, Pagola (EHHA).

egürraldi: Z-Sohüta (EHHA).

eunaldi: N-Aniz (EHHA).

Giro berba eztabaidatzekoa da sail honetan sartzea, *eguraldiren* baliokide gisa. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (EH) dakartzan adiera guztiak irakurrita, «eguratsaren egoera» aipatzen du; beraz, zenbait testuingurutan sinonimotzat har litekeenez, ez da zentzugabekoa hemen sartzea.

Giro

giro: eguratsaren egoera; eguraldia, ingurunetzat hartua. «Udaberriko giro epela», «Giro euritsua», «Udan bai han giro ederra, inon ederrik bazen» (EH).

Azken ele hori, *sasoi*, lekukotasun idatzietan ez da *eguraldia* adierazteko azaltzen. Baina, ahozkoetara joz gero (EHHA), lagin txiki bat emanda, garbi ikusten da Euskal Herriko zenbait bazterretan iraun duela *eguraldiren* sinonimo gisa. Lemoan, berriemai-leari eginiko galderaren erantzunean dago gakoa: «Hemen aroa esaten da? Ez, sasoia» (EHHA). Altzürükün, ordea, *sasu* eta *egünaldi* elkarrekin bizi dira.

Sasoi

sasoi: B-Lemoa, Zollo. «Hemen aroa esaten da? Ez, sasoia» (EHHA).

sasoñ: L-Donibane Lohizune (EHHA).

sasu (egünaldi): Z-Altzürükü (EHHA).

Eguraldia izendatzeko hitz guztiak aztertuta, ez dago inolako arrazoirik gure arbasoen adimen-begiek eraikitako adiera guztiak ertzeratzeko; tokian tokikoak, sasoian sasoikoak eta egoeran egoerakoak baliatzea da bidea. Ez ditzagun kulturaren oinarrituriko eleak ahanzt!

4.1.1. *Eguneko eguraldia*

Jarraian, azpisail bat osaturik, «eguneko eguraldia» aipatzeko hitzen berri emango da. Ez da ikusten eguraldiaren eremu semantikoa kontuan hartuta, baina hiztun batzuek desberdin samar sumatzen dituzte «eguraldi orokorra» eta «eguneko eguraldia». *Labayru hiztegiak* baizik ez du adierazten Azkuek jasotako adiera, *egun* + *aroz* osatua. *Eguraldi* berba bera ere erabiltzen da «eguneko eguraldia» aditzera emateko. Aurrerago emango zaio toki berezia hautemate eta adiera horri.

Egunaro

egunaro: (Azkue, 1923-1925/1969). «Tiempo atmosférico a lo largo del día». «Egunaro ona dagoanean, etxe-aurreko landan egoten dira kontu-kontari» (*Labayru hiztegia*).

Eguraldi

egunaldi: «Ezinduak olako egunaldi baten ondotik, nola berriz loth bideari?» «Har zatzu Jainkoaren eskutik zuen hotz-busti ta egunaldi on eta gaixto guziak». Jonnateguy, *Sainduen*, I, 489. or. *Fedearen Propagacionea*, 1881, 38. or. (DRALV).

eguraldi: orokorra. «Eguraldi ederra zegok» (gipuzkera). «Atzokoaren damurik ezta-
kar eguraldi onek». *Euskalerriaren yakintza*, 1989, 341. or. [*Se dice cuando al día siguiente de un día malo viene otro peor*] (Azkue, 1935-1947/1989).

4.1.2. *Klima*

Klima luzaro neurtzen den lurraldeko bateko eguraldia da; beraz, urte luzaz eguraldia nolakoa izaten den hautematen da. Hori izendatzeko, gehienetan *klima* maileguaz baliatu ohi gara, baina, zenbaitetan neologismoak sortzera jotzen da, hiztunen adimen-begiari itzuriz; haietariko bat *egurasti* da, *egurats* + *-tiz* osatua.

Egurasti

egurasti: «Garai artan (Paleolitos) egurastiak aldaketa izugarriak egin zituan». Barandiaran. *Leen gizona*, 13. or. (DRALV).

4.2. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den

Gizakiak maiz eguraldia nolakoa den eta nola dagoen adierazi beharra dauka, eta horrelaxe egiten du. Ohikoena da *txarra* edo *ona* dela esatea, baina adimen-begiak hortik haratago ikusi ohi du, eta orotariko izenondoak, izenak, aditzak eta aditz-lokuzioak erabili ohi ditu. Eguraldiari «lagunak» ematea zeharo kontu kulturala da, oro har, nekazarien jarduerari uztartua, baina, gaur egun, «ona» edo «txarra» dela aditzera ematea aisialdiari lotutakoa dela begitantzen zaigu. Jarraian, taula batean kontzeptu guztiak adierazi eta horrekin batera, eguraldiaren egoerarekiko oparotasunaren erreferentzien lagin handi samarra agerraraziko da. Taulan *ona* eta *txarra* elkarren ondoan ipiniko dira, erkaketa aiseago egingo delakoan. Ezagun da ikuspegi ezkorra gailentzen zaiola baikorrari, hiztunen adimen-begiaren arabera. Aurrerago eguraldi «ona» eta «txarra» direla-eta, beste sailkapen bat egingo da ñabardura sakonagoak zehatuz, batik bat nekazaritzari lotutako kontzeptuak. Beheko taulan, gehienbat, eguraldiak hartzen dituen izenondoak eta izenlagunak azalduko dira.

1. taula. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den

Aldakorra	Beroa	Busti-lehorra	Edonora / Inora ez	Egokia
<i>aldakor</i>	<i>zergel</i>	<i>busti-lehor</i>	<i>edonoraro / inoraro</i>	<i>aro hauta</i> <i>aroi</i> <i>arol</i> <i>egotaro ona</i> <i>eguario</i> <i>eguraldi</i> <i>eultzi-giro</i> <i>goibara</i> <i>ongiro</i> <i>zeruak goiz ona</i>
Euria ekarri	Euririk gabea	Euritsua	Eguzki-euri	Ezohikoa, oso beroa
<i>samur</i>	<i>muzin</i>	<i>busti</i> <i>langasta</i> <i>nabar</i> <i>txatxu</i> <i>zirtzil</i>	<i>hori</i>	<i>marmoka</i>
Garbia	Goibela	Hezea	Hotza + laino	Lainotua
<i>abaldenbora</i> <i>ostraka</i>	<i>erori</i> <i>goiarre</i> <i>muzin</i> <i>zarpail</i>	<i>busti</i> <i>umel</i>	<i>zimu</i>	<i>lodi</i>
Lasaia (oso)	Lehorra	Nahasia	Osasuntsua	-Ziurtasun
<i>eguraldi manea</i> <i>egon</i>	<i>gogor</i> <i>idorgiro</i> <i>lehorgiro</i> <i>sapoltsu</i> <i>zail</i> <i>tenkor</i>	<i>harroxka</i> <i>lardaka</i> <i>lardats</i> <i>lorrin</i> <i>nahasi</i> <i>narras</i> <i>senetik irten</i> <i>urrigiro</i>	<i>sano</i>	<i>badaezpadako</i>

Sailkapen honi dagokionez, adimen-begiak bizitzaren beste alor semantiko batzuetatik hedatu ditu adierak eremu etnometeorologikora; alderantziz ere gerta liteke, eguraldiari buruzko terminoak beste alor batzuetara ere pasatzen dira; adibidez, *goibel*, «pertsona bat triste dagoela adierazteko». Eremu etnometeorologikora lerratu direnen artean, den-dena ez da aztertuko, bereizgarrienak soil-soilik. Honako hauek dira aipatzekoak:

Zergel Azpeitian jasota dago, eta kasu honetan ere badirudi zabaltze semantikoren bat suertatu dela, *zerbel*, *zerepel* eta *zerrepel* ere dokumentaturik daude-eta. Epeltasunari eta berotasunari loturiko adierak dira. *Zerrepel* ere entzuten da, pertsona bat «txolindurik» dagoela adierazteko.

Samur berba beste eremu batzuetan irakurri eta entzutea oso arrunta ohi da; hemen euria dakarrela esan nahi du, hau da, adimen-begiak sumatzen eguraldia prest dagoela euria jasotzeko.

Muzin da, oro har, «norbaitek zerbait atsegin edo gogoko ez duela erakusteko egiten duen keinua» edota «haserrea edo atseginik eza erakusten duena» (EH). Bistan da, eguraldia hizpide, eguraldiak euriari *muzin* egiten badio, «euririk gabekoa» eman nahi duela aditzera.

Kontrakoa, aroa euritsua dela agertzeko erabiltzen direnen artean, *nabar* dugu, «kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa; orban ilunak edo arreak dituen» (EH). Hitzunen adimen-begiak eskualde batzuetan horrelakoxe kolorea hautematen du euria egiten duenero.

Txatxu hitza ere ildo berekoa da, pertsona bat «ergela» edo «ganorabakoa» adierazteko erabilia, *eguraldi txatxua*, «eguraldi ergela, euritsua» dela azaltzeko da.

Zirtzil terminoa ere oso interesgarria da, «oso euri mehea» esan nahi du-eta. Jatorriz, arroparekin erabiltzen den berba dugu, «jantzi zahar eta urratua». Hortik igaro da, hitzunen adimen-begiak metafora ederra osaturik, euri xehe-xehea adieraztera. Soinekoen zirtzilak eta euriaren mehetasuna erkatzen dituzte hitzunek.

Horia da eremu etnometeorologikoan erabiltzen den beste kolore bat. Hitzunen adimen-begiaren arabera, ez dago eguzkirik, lainoturik dago, baina ateri da, ez du euririk egiten; giroa, eguratsa, ortzia *hori* sumatzen dute hitzunek.

Aro bero-beroa dela eta, *marmoka* elea jasota dago. Garbi dago beti erabiltzen dugula «ehun gardenez osaturiko itsas animalia» (EH) aditzera emateko. Zaila da jakiten hitzunen adimen-begiak zer-nolako alderaketa egiten duen animalia horren eta eguraldi oso beroaren artean. Agian, tankera horretako aroaz baliaturik, marmokak hurreratzeko dira kostaldera.

Eguraldiaren goibeltasuna berbabide, *muzin* berriz ere azaltzen da; Azpeitian, hotza, euririk gabea; Aian, goibela. Herri berean ere, arropari loturiko beste termino batez baliatzen dira: *zarripail*. Oro har, «piltzarrez jantzia; gaizki jantzia» edota «gai edo

molde arruntez egina landu ez dena, leuntasunik edo inongo dotoretasunik ageri ez duena» (EH). Horrelakoxea da, bai, eguraldi *zarpaila* adimen-begiaren arabera.

Interesgarri askoa da eguraldia *lodi* dagoela adieraztea, hots, lainotuta. Hiztunek ortziaren goibeltasuna loditzearekin erkatzen dute. Kontrakoa ere erabiltzen da; adibidez, *mehetu*, zerua garbitu edo oskarbitu duela agertzeko. Zenbat bider ez ote digute galdetu nola esaten den «despejar» euskaraz? Hamaikatzotan. Eguneroko bizitzako *lodi(tu)/mehe(tu)* bikotea ere islatzen da etnometeorologian. Adibidez, «euria edo elurra *lodi* da» edota «*lodi* ari du» euria barra-barra edo elurra mara-mara ari duela adierazteko erabiltzen da. Hodeiak sare-sare egonez gero, *loditu* ere egiten dira. Eta, jakina, behe-lainoa sarri-sarria denean ere, *lodia* izan daiteke. Nik adiera horien hutsunea sumatzen dut gure hiztegieta. Bestalde *mehe(tu)* ere erruz erabiltzen da arlo honetan. Esaterako, haizea *mehea* izan daiteke, leuna edo adierazteko; «Elur *mehe* ari du» ere erabiltzen da, *lodi* egiten ez duenerako; euria *mehea* ere izan daiteke, zirimiriaren modukoari irizteko; alor berean euriak hanka mehea izan dezake, «euri *ankame*», hau da, euri xehea.

Sail gehienetan aditz-lokuzioak ugari dira, batez ere Justo M. Mokoroak jasotakoak (Mokoroa, 1990); izan ere, eguraldia lehorra dela aditzera emateko bi aditz-lokuzio adierazkorak dira, oso: *zail egon* eta *zerua tenkor egon*. Ezagun da hiltunen adimen-begia beste eremu semantiko batzuez baliatzen dela esanahia hedatzeko. *Zail dago* edo *tenkor dago zerua*, ez du euririk egin nahi. *Lehor* giroa egoten denean erabiltzen da batik bat.

Eguraldi nahasia hizpide, hiltunak beste eremu batzuetako berbez baliatu ohi dira. Bistan da Euskal Herriko eguraldia nahasi samarra izaten dela; hori dela eta, ugari dira lardaskeria eta lorrinkeria adierazteko terminoak. Bildutakoen artean, aditz-lokuzio bat: *senetik irtenda ibili*. Azalpenean argi eta garbi azaltzen da adimen-begiak nola hautematen duen horretariko eguraldia: «Eguraldi au be senetik urtenda dabil egunkaz, batean otz, bestean bero» (Mokoroa, 1990).

Eremu etnometeorologikoan sortu eta garatu direnen artean honako alor eta berba hauek dira aipatzekoak.

«Edonora joateko edo inor ez joateko aroa» berbabide, bi hitz ditugu aztergai, aurkia eta ifrentzua: *edonoraro* eta *inoraro*. Adimen-begiak hitz eratorri bakar batean laburbildu ahal izan du oso mezu garbia. Kasu honetan *aro* hitza *-aro* atzizki bihurtu da.

Aro hitz eta atzizkia usu azaltzen da gainerako alorretan; adibidez, eguraldi egokia dela aditzera emateko *aro hauta ari* aditz-lokuzioa, *aroi* eta *arol* eleak baturik daude. Atzizki gisa, *egotaro* berba eta *eguario ederra ekarri* aditz-lokuzioa. Sail berean eguraldi hitza sarri agertzen da. Zentzuzkoa da pentsatzea, jatorriz, *eguraldi/egunaldi* hitza, berez, eguraldi ona zela: «Elur larriak elur andi, elur xeak egunaldi» (Azkue, 1905-1906/1969).

Kulturaren eragina argi eta garbi islatzen da *eultzi-giro* hitz elkartuan. *Eultzi* hitzak haxe esan nahi du: «larrainean jo aurretik edo ondoren, etzanda dauden uzta azaoen multzoa». Guztiz uztartzen da nekazaritzaren jarduera eguraldi egokiarekin. Ezinbestekoa da horrelako giroa eultzitzea behar bezala egiteko.

Aro euritsua dela eta, *langasta* berba aipatzekoa da. Hitzaren osagaiei dagokienez, garbi samar sumatzen da nondik etor litekeen: *langar* + *-sta*; azken hori txikigarritasuna adierazteko atzizkia izan daiteke: izan ere, *olasta* berba ere badugu, Azkueren arabera, «haizeak harrotzen dituen olatu txikitxoak» adierazteko.

Eguraldiaren garbitasunari dagokionez, berezko bi hitz jaso dira: *abaldenbora* eta *ostraka*. *Abaldenbora* *abal-* *apal-* izan liteke, hau da, «behekoa». *Beheko haizeak* esanahi asko ditu, baina bat eta nabarmena, «hego-mendebal edo hego-haizea» da. Horrelakoetan eguraldia garbi samarra izaten da; *beheko haizeak*, ordea, bestelako haizea adierazi nahi duenean, mendebala, ipar-mendebala edo iparra izan ohi da. *Ostraka* berba, ziurrenik, *ortziri* loturik dago, ortziaren araztasunari, hain zuzen ere.

Oskarbitasunaren kontrakoa, goibeltasuna izaten da; sarritan zikinkeriarri loturiko eleak erabiltzen dira; esaterako, *goiarre*, kolorea nabarmenduz, edo *zarpail*, inolako dotoretasunik ez duena; beste batzuetan, goialdearen haserrea hartzen da aintzat, *muzin*, hain zuzen ere, ortzia bekozko ilunez balego bezala.

Eguraldia lainopekoa eta hotza dela aditzera emateko *ximu* berba enigmatikoa dugu. Ba ote dauka zerikusirik *tximu egin* aditz-lokuzioarekin, hau da, blai eginda egotearekin, edota eguraldi *tximinoa* adierazi nahi du? Enigmak dirau, irau.

Goiago mehetasuna aipatu da, besteak beste, eguraldia *mehetu* duela, garbitu duela, alegia. Oraingoan eguraldia *lodi* dago, guztiz lainotuta. Aipatu bezala interesgarri askoa da *mehelodi* bitasuna. Adimen-begiak bizitzako beste arlo batzuetako bitasuna ekarrarazi du aro-kontuetara.

Eguraldia oso lasaia dela aditzera emateko, aditz-lokuzio bat dugu. *Eguraldi manea egon*. Antza denez, *manea* *maneratik* etor liteke, hau da, *eguraldi manerak* «adeitsua, molde onekoa» adierazten du.

Aroaren lehorra dela izendapenen artean bi termino nabarmentzekoak dira: *bata*, *sapoltsu*, *zaporetsutik* etor litekeena, baina, itxuraz, eguraldia gozoa agertu nahi duela dirudien arren, adimen-begiak idor giroari lotzen bide dio; bestea, aditz-lokuzioa, *zerua tenkor egon*, hau da, ortziak tinko, irmo dirauela, ez duela negar egin nahi, alegia.

Azkenik, Euskal Herrian aro nahasia izatea ohikoa da oso, eta, jakina, horrek isla nabarmena du lexikoan. Oro har, adimen-begiak, beste arlo batzuetatik ekarri ditu berbak eta aditz-lokuzioak, eta termino bakarra hilabete bati buruzkoa: *urrigiro*. Izan ere, urria oso hilabete nahasia izan ohi da, hego-haizearen eraginez, denetariko hozbe-roak eta egoerak izaten dituen.

Bestalde, nahaste horren adierazle, eguraldi *lardaka*, *lardatsa*, *lorrina* eta *narrasa* ditugu, zikinkeria kutsua dutenak. Aditz-lokuzio bakarra haserreari uztarturik dago: *senetik irtenda ibili*, aroaren aldakortasuna aditzera eman nahi duena. Hona jasotako termino guztiak testuinguruan kokatuta:

Aldakorra

Aldakor

aldakor: bizkaiera. «Aldakor dabil egunokaz eguraldia» (Mokoroa, 1990).

Beroa

Zergel

zergel: G-Azpeitia. «Beroa, garbi dagoela, hego haize antxakin» (Garate, 1998).

Busti-lehorra

Busti-lehor

busti-lehor: gipuzkera. «Udako busti-legorrak kalte aundia egin dio gure sagastiari» (Mokoroa, 1990).

Edonora joateko edo inora ez joateko eguraldia

Edonoraro/Inoraro

edonoraro: (Azkue, 1923-1925/1969).

iñoraro: B-Gernika, Mundaka. «Iñorarorik eztago gaur» (DVEF).

Eguraldi egokia

Aro hauta

aro hauta ari: N-Baztan. «Aro auta ari digu» (Mokoroa, 1990).

aroi: G-Hondarribia. «Eztago aroirik itxasora ateratzeko», «Ezta txalupa etorriko, eztagolako aroririk» (DVEF).

arol: B-Txorierri (DVEF).

Egotaro

egotaro ona egon: bizkaiera. «Egotaro ona dago hemen» (Mokoroa, 1990).

Eguaro

eguaro ederra ekarri: bizkaiera. «Eguaro ederra dakar» (Mokoroa, 1990).

Eguraldi

egueldi: «Biamamonez egueldi dala / aitonak leiotik igar». Orixe. *Euskaldunak*, 434. or. (DRALV).

egunaldi: behe-nafarrera / lapurtera / N-Bidankoze / zuberera. «Elur larriak elur andi, elur xeak egunaldi» (DVEF).

eguraldi: Oihenart. *Atsotitzak*, 199. or. «Goiz gorriak dakarte uri, arrats gorriak eguraldi». «Ats gorri, bier eguraldi» (Izeta, 1996).

eguraldi ederra ekarri: gipuzkera. «Egualdi ederra dakar» (Mokoroa, 1990).

eguraldi onak ekin: G-Eibar. «Eguraldi onak ekin detse» (Mokoroa, 1990).

eguraldiak onerantz eman: bizkaiera. «Eguraldiak onerantz emon dau...» (Mokoroa, 1990).

eguraldia zaildu: N-Leitza. «Noizbait-ere egualdia zaildu du» (Mokoroa, 1990).

Eultzi-giro (*haize pixka batekin*)

eultzi-giro: N-Etxarri-Aranatz (Maiz & Mundiñano, 1998).

Goihara

goihara: zuberera (DVEF).

Ongiro

ongiro egon: B-Ondarroa. «Ongiro dago gaur» (Mokoroa, 1990).

Zeruak goiz ona agertu

zeruak goiz ona agertu: bizkaiera. «Askotan agertzen dau goiz ona zeruak» (Mokoroa, 1990).

Euria ekarri ohi duen eguraldia

Samur

samur: N-Baztan (DVEF).

Euririk gabea, hotza

Muzin

muzin: G-Azpeitia. «Egualdi muxina, hotza, euririk gabea» (Garate, 1998).

Euritsua

Busti

busti: gipuzkera. «Eguraldi bustia» (Mokoroa, 1990).

Langasta

langasta: G-Tolosa. «Kanpoan ere, eguraldi langasta orrekin ez dago ezer jartzerik» (Mokoroa, 1990).

Nabar

ñabar: gipuzkera. «Eguraldi ñabarra dago...» (Mokoroa, 1990).

Txatxu

txatxu: gipuzkera. «Denbora txatxu onek bazter guztiyak usteldu biar ditu» (Mokoroa, 1990).

Zirtzil

zirtzil: gipuzkera / goi-nafarrera. «Denbora zirtzil unekin eztaiteke lanik egin» (Mokoroa, 1990).

Ez eguzkitsua, ez euritsua***Hori***

ori: zuberera (DVEF).

Ezohikoa, oso beroa***Marmoka***

marmoka: B-Ispazter (DVEF).

Garbia***Abaldenbora***

abaldenbora: gipuzkera (DRALV).

Ostraka

ostraka: G-Azpeitia (Garate, 1998).

Goibela***Erori***

erori: N-Bortziriak (DVEF).

Goiarre

goiarre: goi-nafarrera. «Egualdi goiarrea dago (goialdea zikina dagoenean)» (Garate, 1998).

Muzin

muxin: G-Aia. «Eguraldi muxiña» (Mokoroo, 1990).

Zarpail

zarpil: G-Aia. «Eguraldi zarpilla» (Mokoroo, 1990).

Hezea***Busti***

busti: «Giro bustia dugu» (Landa, 2003/2004).

Umel

umel: «...eta giroa umela eta eskasa izango da» (Landa, 2003/2004).

Hotza, lainopekoa***Zimu***

zimu: G-Azpeitia. «Eguraldi ximua». «Lainopekoa, hotza» (Garate, 1998).

Lainotua

Lodi

lodi: G-Hondarribia. «Eguraldia lodi zegon egun oketan; meetu du» (Mokoróa, 1990).

Lasaia (oso)

Eguraldi manea egon

eguraldi manea egon: bizkaiera. «Eguraldi manea dago» (Mokoróa, 1990).

Lehorra

Gogor

gogor: B-Otxandio. «Eguraldi gogor onek jarraituten badau...» (Mokoróa, 1990).

Idorgiro

idorgiro: N-Baztan, Leiza / lapurtera (DVEF).

Leborgiro

legorgiro: G-Orokorra (DVEF).

Sapoltsu

sapoltsu: N-Zaraitzu (DVEF).

Zail

zail egon: gipuzkera. «Zail dago eguraldia», «Zail dago; eztu nai» (Mokoróa, 1990).
eguraldia zaildu: N-Baztan. «Eguraldia zaildu du» (Mokoróa, 1990).

Tenkor

zerua tenkor egon: ad. lok.: N-Larraun. «Larraunek gogotik egin arren eskari zerua tenkor dago» (Mokoróa, 1990).

Nahasia

Harroxka

harroxka: behe-nafarrera. «Denbora harroxka zen: baina halarik ere partida burutu due» (Mokoróa, 1990).

Lardaka

lardaka: G-Oñati. «Egualdi lardakia» (Izagirre, 1971).

Lardats/latrats

lardaskeria: «Gero, arintze aldera egingo du, baina lardaskeriak jarraituko du» (Landa, 2003/2004).

lardats: «Bihar goizean eguraldia lardats samar egongo da, eta arratsaldean jasotze aldera egingo du» (Landa, 2003/2004).

latrats: G-Azpeitia (Garate, 1998).

Lorrin

lorrin: B-Gernika, Ispazter, Txorierri. «Gu Bilborako egotea asko da eguraldia lorrin-duteko» (Azkue, 1905-1906/1969). «Aro onari begira oba da, berandutxu izanda be, den-pora lorriña edo lur sikuagaz erein baño». *Arantzazu Egutegia*, 1959-11-01 (DRALV).

lorrindu: «Eguraldia lorrindu dau» (*Labayru hiztegia*).

Nahasi

nahasi: (EH).

Narras

narrats: G-Tolosa. «Eguraldi narratsa dago: ez ebi, ez ateri...» (Mokoroa, 1990).

Senetik irtenda ibili

senetik irtenda ibili: bizkaiera. «Eguraldi au be senetik urtenda dabil egunokaz, batean otz, bestean bero» (Mokoroa, 1990).

Urrigiro

urrigiro: Archu. Eskuizkribua (DRALV).

Osasuntsua

Sano

sano: «Zerua garbi samar eta giroa sanoa» (Landa, 2003/2004).

Ziurtasun gabekoa

Badaezpadako

Badaezpadako: gipuzkera. «Itsasora ateratzeko badaezpadako egualdia dago» (Mokoroa, 1990).

2 taula. Nolako eguraldia: ona eta egokia

Ona eta egokia		
<i>agindu bezalakoa</i>	<i>gorrotorik ez eduki</i>	<i>lazo</i>
<i>arin</i>	<i>gozo</i>	<i>lasa</i>
<i>atsegin</i>	<i>gustagarri</i>	<i>lasai</i>
<i>basa</i>	<i>itxura oneko</i>	<i>lazo</i>
<i>berealdiko</i>	<i>lasa</i>	<i>onaldi</i>
<i>bikain</i>	<i>lasai</i>	<i>polit</i>
<i>dotore</i>	<i>tenple oneko</i>	<i>sasoi</i>
<i>eder(rraldi)</i>	<i>trimotor</i>	<i>zoragarri</i>
<i>eroso</i>	<i>txukun</i>	

Bigarren taula dela eta, eguraldiaren «ontasuna», horrelakotzat jotzea arazotsua bada ere, bistan da adimen-begia beste arlo batzuetan erabili ohi diren izenondo eta aditz-lokuzioez baliatu izan dela sorta eder askoa osatzeko. Bereizgarrienak aipatuko dira, bitxigarrienak, kulturari oso lotuak egoteagatik.

Iruzkín azpimarragarria dute aditz-lokuzioek: *agindu bezalakoa* eta *gorrotorik ez eduki*. Lehenengoari gagozkiolarik, itxura denez, eguraldiari eska lekioket nolakoa nahi genukeen edozein giza jardura egiteko: *eguraldia aginduta egin bezalakoa* edo *eguraldia agindu bezalakoa*. Bigarrena dela eta, ezezko metafora eder baten bitartez, hain arrunta izaten dena euskaldunon artean, adierazten da aroa itxura onekoa dela: *gorrotorik ez eduki*; edukiko balu, aro kaskarra.

Gainerakoen artean, nabarmentzekoa da *trimotor-egualdi*, adimen-begiak guda zibilaren garaian sortutakoa, eguraldi «on»-arekin agertzen omen zirelako hegazkin trimotorrak Eibar eta ingurura bonbak jaurtitzera. Kasu horretan, eguraldi «ona» gaiztoa zen bonbardaketak pairatzen zituzten-eta. Adibide horretan sumatzen da kulturaren eta hizkuntzaren arteko ezinbesteko uztardura. Hona hemen jasotako termino guztiak:

Ona eta egokia

Agindu

Eguraldia aginduta egin bezalakoa: bizkaiera. «Aginduta (esanda) egiña-langoa...» (Mokoroa, 1990).

Eguraldia agindu bezalakoa: bizkaiera. «Eguraldia agindu balebe-lakoa dauke» (Mokoroa, 1990).

Arin

arin: gipuzkera. «Egualdi ariñ dago» (Mokoroa, 1990).

Atsegin

atsegin: «Hego-sartaldeko haizeak epeltasun pixka bat ekarriko du, eta giro atseginagoa jarri» (Landa, 2003/2004).

Basa

basa: goi-nafarrera. «Eguraldi basa» (Azkue, 1935-1947/1989).

Berealdiko

berealdiko giroa egon: G-Asteasu / bizkaiera. «Berealdiko giroa dago eperretarako», «Berealdiko giroa dago arta-jorrarrako» (Mokoroa, 1990).

Bikain

bikain: «Epel eta dotore, giro bikaina izango da, atzokoa baino erosoagoa» (Landa, 2003/2004).

Dotore

dotore: «Epel eta dotore, giro bikaina izango da, atzokoa baino erosoagoa» (Landa, 2003/2004).

Eder

eder: «Eguraldi ederra eta gustagarria haizea suabe dabilen bitartean, behintzat» (Landa, 2003/2004).

ederraldi: B-Txorierri / N-Baztan. «Itxasoa ederraldian dugu» (DVEF).

Eroso

eroso: «Hortaz, giro epela eta eroso» (Landa, 2003/2004).

Gorrotorik ez eduki

gorrotorik ez eduki: gipuzkera. «Eztauka gorrotorik (eguraldiak); axari-ezkontza izango da...» (Mokoroa, 1990).

Gozo

goxo: «Batez besteko hotza txikiagoa eta epeltasun goxoa arratsaldean» (Landa, 2003/2004).

Gustagarri

gustagarri: «Eguraldi ederra eta gustagarria haizea suabe dabilen bitartean, behintzat» (Landa, 2003/2004).

Itxura oneko

itxura oneko: «Itxura oneko eguraldia, arratsalde dotorea» (Landa, 2003/2004).

Lasa

lasa: N-Etxalar. «Eguraldi-lasa» (DVEF).

Lasai

lasai: Bortziriak (Garate, 1998).

Lazo

lazo: behe-nafarrera (DVEF).

Onaldi

onaldi: «Eskas aldiaren barruko onalditxoa izango da», «Onaldi luze baten hasiera» (Landa, 2003/2004).

Polit

polit: «Egun polita eta tenple onekoa» (Landa, 2003/2004).

Sasoi

sasoin: «Egun sasoin dugu» (Harriet, OEH).

Tenple oneko

tenple oneko: «Egun polita eta tenple onekoa» (Landa, 2003/2004).

Trimotor

trimotor-egualdi: G-Eibar. «Gerran jaixotako esapidia. Egualdi onakin agertzen ei ziran trimotorrak Eibar eta ingurura bonbak jaurtitzera. Hortitik egualdi eguzkitsu eta argixari trimotor-egualdi esatia» (Sarasua & Basauri, 2003).

Txukun
txukun: «Fresko samar baina txukun hasiko da eguna» (Landa, 2003/2004).

Zoragarri
zoragarri: «Giro zoragarria», «Eguraldi zoragarria» (Landa, 2003/2004).

3 taula. Nolako eguraldia: txarra, gaiztoa eta desagokia

Txarra, gaiztoa eta desagokia			
aldigaizto	ezatsegin	likixkeria	sumin
arogaitz	gaizto	mamo	trakets
babes-giro	gaitz	mantar	txakur
beltz	gordin	minkatz	txar
berde	gozakaitz	motel	txatxu
berdots	grazia gutxiko	mutur beltz	uger
bihurri	hendes	ospel	zantar
desatsegin	inbernada	patal	zatar
eramai	itsusi	petral	zepotz
eskas	kaskar	pistar	zozo

Hirugarren taula honetan, lehenengo begiratu batean, hautematen da aro txarra, gaiztoa eta desagokia aditzera emateko terminoak ona eta egokia dela adierazteko baino gehiago direla. Adimen-begiak joera izaten du ezkortasuna azaltzeko, errazagoa gertatzen bide zaielako hitzunei alderdi hori azpimarratzea, irudi ederrak eratzeko. Badira bizitzako beste alor batzuetatik ekarritako terminoak, eta badira eguraldiari berezkotasuna darienak.

Lehendabiziko terminoen artean hauexek dira azpimarragarrienak.

Babes-giro hitz elkartuak aterpean eta abaroan egon beharra adierazten du; hori uste du adimen-begiak, behinik behin.

Koloreak ere azaltzen dira aroaren ezkortasuna azaltzeko, *beltz* eta *berde*. *Berde* soilik erabiltzen da, eta batzuetan *-te* atzizkiarekin iraupena adierazteko: *berdate*. *Eguraldi gorria(k) izan, ikusi* aditz-lokuzioa bitxia da, baina ez dugu eguraldi kaskarra adierazteko aurkitu, baizik eta, arotik kanpo, egun latzak eta gogorrak adierazteko; *berdots* izenondoak ere *berderekin* izan lezake zerikusirik, kolorearen hostasuna eta kualitatea nabarmenduz: *berde* + (*h*)ots. Nabarmentzekoa da hemen zer-nolako ikuspegiaz jabetzen den adimen-begia.

Animaliak ere azaltzen dira; adibidez, *eguraldi txakurra*, izenondo gisa. Badirudi adimen-begiak gaztelaniatik ekarritako mailegua izatea, baina nabarmentzekoa da nola izen bat izenondo bihurtu den.

Bizitzako beste arlo batzuetan oso arruntak dira *bihurri*, *desatsegin*, *eskas*, *ezatsegin*, *gaizto*, *gaitz*, *gordin*, *grazia gutxiko*, *itsusi*, *kaskar*, *minkatz*, *motel* *mutur beltz*, *patal*, *petral*, *sumin*, *trakets*, *txar*, *txatxu*, *uger*, *zantar*, *zatar* eta *zozo*.

Bigarrenekoen artean, aroari atxiki dakizkiokeenak dira aztertzeak.

Biziki eguraldi gaizto eta gaitza adierazteko, bi termino azpimarratzekoak dira: *aldi-gaizto* eta *arogaitz*. Adimen-begiak *aldi* eta *aro* izenak, *gaizto* eta *gaitz* izenondoekin uztartzen ditu. Esan gabe doa, *aldi* denborari lotuta badago ere, arrunt askoa dela aro-kontuetan: *eguraldi*, *eguzkialdi*, *elurraldi* eta abar.

Aipatze nabarmena dute *eramai* hitzak eta haren inguruan sortutakoek; berez, «euri-, elur- edo txingor-erauntsia» esan nahi du, baina haren bitartez eratutakoak haizetaratutakoak dira: *eramaizta*, «ekaitz handia»; *eramaittua* da, «euria edo elurra oparo hasten duenean»; *eramaittu gogorra* edo *txarra*, «oso eguraldi gaiztoa». Hortaz, hitz sorta hau, nire ustez, adierazkortasuna dela eta, zabaldu beharrekoa da euskara estandarrera.

Hendes elea iluna da; baliteke aroaren berezkoa ala ez. «Eguraldi txarra» ematen duela aditzera baino ez dakigu.

Azkuek, garbizale samarra izanik ere, mailegu baten berri ematen du hiztegian eguraldi eskasari irizteko: *inbernada* (Azkue, 1905-1906/1969). Bistan da latinetik etorritako berba dugula. Gaur egun, lozorroan dagoelakoan gaude: ez da inon ere erabiltzen, nonbait.

Eguraldi txarra, euritsua eta hotza adierazteko, *ospel* elea dugu. Esanahi askotakoa da: «azkordina» adierazteaz gain, «toki laiotza» ere izan daiteke. Ziurrenik, horixe izango zatekeen lehenengo esangura, eta gero adimen-begiak lerratuko zuen beste eremu batzuetara. Baliteke (*h*)otz + *bel*(tz)etik etorri izana.

Azkenik, *sainate* hitzak ere aipamen berezia merezi du. Azterketa honi dagokionez, «arrunt aro kaskarra» esan nahi du; bestetik, «goizaldeko haizea» adierazteko erabiltzen da, antzigar handiko gauetan, hain zuzen ere. Hitzaren eraketa dela eta, iluna da, gatzelaniaren *saña* izan liteke lehenengo osagaia; *-te* atzizkia bigarrena.

Txarra, gaiztoa eta desegokia

Aldigaizto

aldigaizto: «Itxas-gizon zarautztarrak nai zuketen, itxasoko aldigaiztoz Getari'ko kaiera eltzen baziraden, (arrai berriya) bertan saltzea». I. Pradere. *Euskal Esnalea*, 1913, 4. or. (DRALV).

Arogaitz

ahogaitz: zuberera. Harriet (OEH).

arogaitz: Harriet. Hiztegia (OEH).

Babes-giro

babes-giro: gipuzkera. «Babes-giro dago gaur» (Mokoroa, 1990).

Beltz

beltz: lapurtera. «Aro beltza izan dugu» (Mokoroa, 1990).

Berde / Berde + te (*eguraldi txar luzea*)

berde: bizkaiera / gipuzkera / goi-nafarrera. Azkue (1905-1906/1969). B-Gatika, Zamudio. «Denpora berdea laño edo otza» (Gaminde, 1990). «Denpora berde dau» (Gaminde, 1997).

berdate: gipuzkera. «Ostiraleko trumoia, berrogei eguneko berdatea» (Azkue, 1935-1947/1989).

berdete: bizkaiera / G-Andoain (DVEF).

Berdots

berdots: gipuzkera / goi-nafarrera. «Egualdi berdotsa» (DVEF).

Bihurri

bihurri: «Negu bihurria diagu aurten!» (Landa, 2003/2004).

Desatsegin

desatsegin: «Iparreko haize zitalak eta euriak oraindik ere desatseginago egingo dute giroa» (Landa, 2003/2004).

Eramai

eramai: G-Arrasate, Berastegi, Oiartzun, Oñati, Zegama. «Izugarrizko eramai batek jaotzen (du) atzetik, Enea'ren begi aurrean» Azkue (1905-1906/1969) / Otarri. *Euzko-Gogoa*, 1956-05, 106. or. (DRALV).

Eskas

eskas: «... eta giroa umela eta eskasa izango da» (Landa, 2003/2004).

eskas aldi: «Eskas aldiaren barruko on alditxoak izango da», «Eskasalditxoak mende-balagatik» (Landa, 2003/2004).

Ezatsegin

ezatsegin: «Giro ezatsegina eta negu tankerakoa» (Landa, 2003/2004).

Gaizto

gaizto: gipuzkera/lapurtera. «Eguraldi gaiztoarekin elizara ezin etorri...» (gipuzkera), «Aro gaixtoak jo balitu horko mahastiak...» (lapurtera) (Mokoroa, 1990).

Gaitz

gaitz: lapurtera. «... hainitz aro gaitzak egin zituen...» (Mokoroa, 1990).

Gordin

gordin: goi-nafarrera. «Gure bazterrak, ernatzen asiak aste untako urite ta eguraldi gordinekin gibelmin andia artu dute» (Mokoroa, 1990).

gordindu: bizkaiera. «Asko gordindu da eguraldia» (Mokoroa, 1990).

Gozakaitz

gozakaitz: gipuzkera. «Gozakaitzak eta zepotzak izan dira ilbeltza eta otsailla: aitona zarrok garbitu bear, dardara egiñaz ortzak» (Mokoroo, 1990).

Grazia gutxiko

grazia gutxiko: «Eguraldi tristeia eta grazia gutxikoa» (Landa, 2003/2004).

Hendes

hendes: zuberera. «Ezinago hendes ükhen dügü azken egün horietan, eta haatik, lanak gibel baratzen». *Eskualduna*, 1913-05-23 (DRALV).

Inbernada

inbernada: gipuzkera (DVEF).

Itsusi

itsusi: G-Lasao. «Eguraldi itsusiak jo zitualako oso illunak izan ziran Amasako San Martin jaiak» (Mokoroo, 1990).

Kaskar

kaskar: «Bihar ere giro kaskarra, ipar haize petrala izango baita» (Landa, 2003/2004).

kaskar aldi: «Kaskar aldia» (Landa, 2003/2004).

kaskartu: «Arratsaldean euriak giroa kaskartuko du» (Landa, 2003/2004).

Likiskeria

likixkeria: gipuzkera. «Au denbora likixkeriya! Petrala. Denbora txatxu onek bazter guztiak usteldu biar ditu» (Mokoroo, 1990).

Mamo

mamo: «Eguraldi mamo» (DVEF).

Mantar

mantar: B-Lekeitio, Mundaka / G-Aia. «Eguraldi onen mantarra» (DVEF).

Minkatz

minkatz: G-Getaria. «Eguraldi minkatza dago» (Mokoroo, 1990).

Motel

motel: «Itsasaldetik joko du haizeak, eta eguraldi motela eta eskasa izango dugu. Lainotsu eta euritsu» (Landa, 2003/2004).

Mutur beltz

mutur beltz: «Orain ere eguraldiak mutur beltza jarri du eta euri-jasaen bat etorri liteke». J. Eizagirre. *Ekaitzpean* (DRALV).

Ospel (eguraldi txarra, euritsua eta hotza)

ospel: N-Iruñerria (Iribarren, 1952).

Patal

patal: «Hasieran patal, gero bikain» (Landa, 2003/2004).

petral(du): «Tenperaturak behera egingo du eta giroa petraldu», «Berrero ere etorriko da euria eta giroa petraltzen hasiko da» (Landa, 2003/2004).

Petral

petral: gipuzkera. «Au denbora likixkeriya! Petrala... Denbora txatxu onek bazter guztiak usteldu biar ditu» (Mokoroa, 1990).

Pistar

pistar: «Eguraldi pistarra» (DVEF).

Sainate

sañate: N-Baztan. Tiempo malísimo. «A ze sañatea dagon kanpo ortan» (Izeta, 1996). «Sainate, viento helado. Se aplica generalmente al que sopla en las madrugadas de mucho hielo y rosada. Menudo sainate sopla! (Salazar)» (Iribarren, 1952).

Sumin

somin: G-Zarautz. «Eguraldi somiña (sominka) dago...» (Mokoroa, 1990).

Trakets

trakets: «Eguraldi traketsa», «Itsasaldeko eraso traketsa» (Landa, 2003/2004).

trakes(tu): «Gaur arrantzaliak euren arrantzako era eta legetan, “altura” ta “bajura”-ko arrantzaletan bananduta bibi dira. Euskeraz ur-lodi ta ur-meko arrantzaletan, edo ur-handi ta ur-txikikoetan, naiz urruneko ta urrekoetan» (Landa, 2003/2004).

Txakur

txakur: «Eguraldi txakurra». *Elhuyar hiztegia*. «Eguraldi txakurra degu gaur». G-Azpeitia. «Eguraldi txakur honegaz ezingo gara jatxi kalera». G-Eibar. «Oso txakurra dago (eguraldia), negu-neguan baño otz geiago egiten du» (gipuzkera) (Mokoroa, 1990).

Txar

txar: bizkaiera / gipuzkera / goi-nafarrera. «Eguraldi txarra» (DVEF).

txartu: bizkaiera / gipuzkera / goi-nafarrera. «Egualdia txartzen da» (gipuzkera). «Azurak diñoste gaberako txartuko dala eguraldia» (bizkaiera). «Eguraldia txartuko du: zerua gandutzen asi baitu» (goi-nafarrera) (Mokoroa, 1990).

Txatxu

txatxu: gipuzkera. «Au denbora likixkeriya! Petrala... Denbora txatxu onek bazter guztiak usteldu biar ditu» (Mokoroa, 1990).

Uger

uger: B-Leioa (Gaminde, 2001).

Zantar

zantar: B-Lekeitio. «Denpora zantarra» (Lekeitioko lantaldea, 2001).

Zatar

zatar: B-Mungia. «Eguraldi zatarra egon da gaur» (Mokoroa, 1990).

Zepotz

zepotz: gipuzkera. «Gozakaitzak eta zepotzak izan dira ilbeltza eta otsailla: aitona zarrok garbitu bear, dardara egiñaz ortzak» (Mokoroa, 1990).

Zozo

zozo: «Euri asko ez dute botako baina busti antza eta giro zozoa egongo da» (Landa, 2003/2004).

4.3. Eguraldiari buruzko jarduerak

Aroa hizpide, jarduerak ere ematen ditugu aditzera aditz eta aditz-lokuzioen bitartez. Hitzez ez ezik, aditz eta aditz-lokuzioez ere baliatzen gara zer-nolako eguraldia dugun agertzeko. Maiz, aditz soil bakar batez ematen dugu aditzera aroaren berri. Laugarren taula honetan, adimen-begiak eguraldia nola hautematen duen eta nolako antza hartzen dion zerrendatzen da. Egoeren artean xehetasun handi samarrak sumatzen ditu hiztunak, haizeen arrosaren antzera. So egin hutsarekin igartzen da «aroak hobera eta txarrera egitea» gailentzen zaiela beste ñabardurei, eta, hagitz arrunta ez delarik ere, «hobera egitea» «txarrera egitea»-ri nagusitzen zaio, adimen-begiaren ikuspegi baikorra azalaraziz. Ondoren, beste kontzeptuek gutxiago daukate, eta batzuek bakarra. Aipatzekoa da adimen-begiak egoera igarriari egiten diola aurre, aroaren espektro zabala azpimarratuz. Beraz, 4. taulan jardueren berri emango da, aditzak eta aditz-lokuzioak, hain zuzen ere.

4 taula. Eguraldiari buruzko jarduerak

Lagun eta aldekoa izan / egon	Hobera egin	Txarrera egin	Aldatu	Epeldu
aroa alde izan eguraldia lagun izan hozberoaren aroak laketu eguraldiaren tankera gisako izan giro bat-ere egon	argitu arindu arotu garbitu goratu hobera egin / jo jagi jaso lanberatu mehetu ondu oneratu urratu	egungiro txarra ari eguraldia baserretu erori kaskartu mikaztu mindu okertu okerrera jo / egin petraldu trakestu txartu	eguraldiak aldaerak / alde handiak erabili	epeldu hautsi
Zein itxura hartu	Eguraldi txarrak bat-batean harrapatu	Eguraldia eta urtaroa bat ez etorri	Egonkor iraun	Joera adierazi
goiak zer aurpegi izan itxura txarra ekarri taxua izan tankera itsusi	eman	neurritik irtenda ibili	bere batean egon	-t(z)e aldera egin

Sailkapen honetaz den bezainbatean, aurrekoetan aipatu denaren arabera, adimen-begiak, gehienbat, bizitzaren beste arlo semantiko batzuetara hedatu ditu sareak, eta han arrantza eginda, aditzen eta aditz-lokuzioen adierak handitu egin ditu. Esan gabe doa, irudi ederrak sortarazi dituela adimen-begiak, eta ezbaian gaude, zenbaitetan, aroaren eremuan baino ez ote diren erabiltzen; adibidez, *goiak zer aurpegi izan* aditz-lokuzioa, ziur asko, eremu honetan baino ez dute baliatzen hiztunek.

Berezkoak ematen dutenen artean, nabarmendu behar da aroa «lagun eta aldekoa izatea»-n azaltzen diren hitzak ohikoak direla: *aro*, *eguraldi* eta *giro*. Behiala, antza denez, berba horiek aipaturik «eguraldia ona eta egokia» zela ulertzen zen. Beherago azaldutako aipamenetan garbi dago horrelaxe izaten zela. Aroa tarteko *hozberoaren aroak laketu* esapide ederra dugu. Baten bat harrituko da Bizkai aldean baturik dagoela *laketu* eta guzti. *Giro* hitzaren bitartez *giro bat-ere egon* esapidea jasota dago.

Aroak hobera egiten duenean, adimen-begiak baikor sumatzen du jarduera hau, eta aditz eta aditz-lokuzio ugari erabiltzen ditu; batzuk bizitzako beste eremuetatik ekarriak; beste batzuk, ordea, berezkoak, hala ematen du-eta. Esate baterako, *arotu* eta *lanberatu*. *Arotu* aditza bistan da barne-barnekoa dela, eta *lanberatu* aditza, aidanez, eguraldiaren eremuan baino ez da erabiltzen aro gozakaitzetik aro atseginagora igarotzen dela adierazteko. Tartean *beratu* aditza azaltzea zeharo adierazgarria da, ‘bigundu’ edo ‘leundu’ esan nahi baitu.

Kontrakoa izaten denean, aroak txarrera egiten duenean, zenbait esapide eta aditz dauzkagu; gehienak beste eremu batzuetatik etorriak. Esapideak honako hauek dira: *egungiro txarra ari* eta *eguraldia haserretu*. Jakina, *egungiro txarra ari du* aditz-lokuzioa batu dugu. Ederra da Ibarrangelun erabiltzen duten metafora zoragarria: «Asarratu yakun eguraldia ta negarrari emon eutson» (Mokoroa, 1990). Haserretzeaz gain, negarrari eman zion. Hiztunen adimen-begiak sortutako esapide liluragarria. Gainerakoak arrunt samarrak dira bizitzako beste arlo batzuetan.

Hagitx aro aldakorra dugu Euskal Herrian eta, noski, kontzeptu hori ematen dugu noizean behin aditzera. Esapide bakarreko bi aldaera batu ditugu: *eguraldiak aldaerak* edo *alde handiak erabili*. Ez dakigu beste arlo batzuetan baliatzen ote duten hiztunek.

Epeltzea hizpide, bitxia da hainbat bazterretan *hautsi* aditza erabiltzea. Adimen-begiak uste du eguraldia *hausten* duenean, epeldu egiten duela. Horretaz gain, *beroa / hotza hautsi* esapidea ere erabiltzen dela, beti ere epeltzeari lotuta.

Gainerakoen artean, eguraldia eta urtaroa bat etortzen ez direnean, ohikoa Euskal Herrian, *neurritik irtenda ibili* esapidea merezi du iruzkintzea. Hona jasotako corpusa, testuingurua errazago uler dadin.

4.3.1. *Lagun eta aldekoa izan*

Aro

aroa alde izan: lapurtera. «Aroa alde badugu...», «Aroa alde badute...» (Mokoroa, 1990).

hozberoaren aroak laketu: bizkaiera. «Otz-beroaren aroak laketzen dauanean...» (Mokoroa, 1990).

Eguraldi

eguraldia lagun izan: «Eguraldia lagun dala...», «Egualdia lagun badabe...» (Mokoroa, 1990).

eguraldiaren tankera gisako izan: goi-nafarrera. «Egualdien tankera balitza gisako...» (Mokoroa, 1990).

eguraldia itxuraz jokatu: goi-nafarrera. «Bost beor ditugu eultzirako; bada indarririk naiko eguraldia itxuraz joka baledi» (Mokoroa, 1990).

Giro

Giro bat-ere egon: gipuzkera. «Giro badago bat-ere aterako gera...» (Mokoroa, 1990).

4.3.2. *Eguraldiak hobera egin*

Argi(tu)

argitu: G-Aia. «Aia aldetik urratu du (argitu du)» (Mokoroa, 1990).

Arin(du)

arindu: «Gerora arindu eta gauerdirako hobekuntza nabarituko da» (Landa, 2003/2004).

Aro(tu)

arotu: bizkaiera / behe-nafarrera / zuberera (DVEF).

arotuxe: Z-Zalgize (Lhande, 1926) (OEH).

Garbi(tu)

garbitu: «Denbora garbitu da» (Lhande, 1926).

Giro(tu)

girotu: (Lhande, 1926). OEH.

giroa arindu: Gipuzkera. «Giroa arindu du» (Mokoroa, 1990).

Gora(tu)

goratu: N-Baztan. «Eztu goratuko... (Egualdia)» (Mokoroa, 1990).

Hobera egin / jo

hobera egin / jo: «Udea izan arren, denporeak ez dau hobera egiten egunotan» (*Labayru hiztegia*).

Jagi

jagi: bizkaiera. «Eguraldia jagi danean nik ezin eutsi basora urteteko naiari» (Mokoroa, 1990).

Jaso

jaso: «Laster hasiko da, ordea, jaso nahian, eta eguerdirako ederki nabarmenduko da hobekuntza» (Landa, 2003/2004).

Lanberatu

lanberatzen ari: gipuzkera/bizkaiera. «Lanberatzen ari du» (Mokoroa, 1990).

Mehetu

mehetu: G-Hondarribia. «Eguraldia lodi zegon egun oketan; meetu du» (Mokoroa, 1990).

Ondu

ondu: gipuzkera/bizkaiera. «Ez ote du biarko onduko?» (Mokoroa, 1990).

Oneratu

oneratu: N-Etxalar. «Eguraldi gaiztoakin ibilli gera; baña oneratu zaigu» (Mokoroa, 1990).

Urratu

urratu: G-Aia. «Aia aldetik urratu du (argitu du)» (Mokoroa, 1990).

4.3.3. Eguraldiak txarrera egin**Egungigiro txarra ari**

egungiro txarra ari: goi-nafarrera. «Egungiro txarra ari du» (Mokoroa, 1990).

Eguraldia haserretu

eguraldia haserretu: B-Ibarrangelu. «Asarratu yakun eguraldia ta negarrari emon eutson» (Mokoroa, 1990).

Erori

erori: G-Hondarribia. «Egualdia erori da» (Mokoroa, 1990).

Kaskar(tu)

kaskartu: «Arratsaldean euriak giroa kaskartuko du» (Landa, 2003/2004).

Mikaztu

mikaztu: «Euri boladatxo horrek giroa mikaztuko du» (Landa, 2003/2004).

eguraldiak mikaztu bat eman: G-Azpeitia. «Mikaztu bat emango digu oraindik eguraldi onek» (Mokoroa, 1990).

Mindu

eguraldia minu: G-Goierri. «Eguraldia minu du (hoztu)» (Garate, 1998).

Oker

okertu: bizkaiera. «Eguraldia okertu da» (Mokoroa, 1990).

okerrera jo/egin: «Okerrera joko du eguraldiak, eta haizea ipar-mendebaldetik jarriko da». «Arratsaldean okerrera egingo du mendebaldetik sartuko den fronte batekin» (Landa, 2003/2004).

Petral(du)

petral(du): «Tenperaturak behera egingo du eta giroa petraldu», «Berriro ere etorriko da euria eta giroa petraltzen hasiko da» (Landa, 2003/2004).

Trakestu

trakes(tu): «Ostegun Gizenean pixka bat trakestuko du» (Iker Ibarluzea, <https://ataria.eus/komunitatea/ikeribarluzea/1551097062200-udaberri-beteko-eguraldia>).

Txartu

eguraldia txartu: goi-nafarrera. «Eguraldia txartuko du; zerua gandutzen asi baitu» (Mokoroa, 1990).

4.3.4. Eguraldia aldatu**Eguraldiak aldaerak / alde handiak erabili**

eguraldiak aldaerak erabili: gipuzkera. «Egualdiak gaur aldaerak goiz dabizki». «Aldaera asko dabizki gaur eguraldiak» (Mokoroa, 1990).

eguraldiak alde handiak erabili: bizkaiera. «Eguraldiak alde handiak darabiz» (Mokoroa, 1990).

4.3.5. Eguraldia epeldu**Epel(du)**

epeldu: «Haizea nahiko leun ibiliko da, eta iluntze aldera, hego ukitua hartzen duenean, epeldu egingo du» (Landa, 2003/2004).

epeluna egon: «Gabon egunetan egon zan epeluna bat; ostian negua izan da gogorra. Ementxe, aizetatik gordeta dago epeluna bat». Etxebarria. *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (DRALV).

Hautsi

ausi: bizkaiera / gipuzkera / lapurtera / N-Errokari-Zaraitzu / zuberera (DVEF).

4.3.6. Eguraldiak zein itxura hartu**Goiak zer aurpegi izan**

goiak zer aurpegi izan: goi-nafarrera. «Nagusia leiora doa goiak zer aurpegi...» (Mokoroa, 1990).

Itxura txarra ekarri

itxura txarra ekarri: bizkaiera. «Itxura txarra dakar egualdiak...» (Mokoroa, 1990).

Taxua izan

taxua izan: bizkaiera. «Batek daki eguraldi onek zelako tayua izango daun bihar» (Mokoroa, 1990).

Tankera itsusi

tankera itsusi: gipuzkera. «Egualdiak tankera itsusia ta arratsaldera arte etzuten joa-terik izan» (Mokoroa, 1990).

4.3.7. *Eguraldi txarrak bat-batean harrapatu**Eman*

eman: gipuzkera/lapurtera. «Eguraldi txarrak emanda gelditu egin bear izan gendun» (gipuzkera), «Denbora txarrak ematen badu...» (lapurtera) (Mokoroa, 1990).

emon: bizkaiera. «Edurak emonda txarto pasatu gendun» (Mokoroa, 1990).

4.3.8. *Eguraldia eta urtaroa bat ez etorri**Neurritik irtenda ibili*

neurritik irtenda ibili: bizkaiera. «Neurritik irtenda dabil eguraldia... eta eztau eka-rriko gauza onik...» (Mokoroa, 1990).

4.3.9. *Eguraldiak egonkor iraun (ona zein txarra)**Bere batean egon*

bere batean egon: gipuzkera. «Eguraldiak zer dio?... Jasoko ote du? -Ez bere batean dago» (Mokoroa, 1990).

4.3.10. *Eguraldiaren joera adierazi**-T(z)e aldera egin*

-t(z)e aldera egin: «Bihar fresko hasiko da, baina gero epeltze aldera egingo du». «Goizean laino dezente egongo da, baina garbitze aldera egingo du». «Mendebaldeko haizeak giro petralduko du. Gero arintze aldera egingo du». «Arratsaldean jasotze aldera egingo du». «Arratsaldean goibeltze aldera egin eta iluntzean euri tanta batzuk botako ditu» (Landa, 2003/2004).

4.4. *Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia*

Hiztunen adimen-begiak aroa egokitu izan du, mendeak joan, mendeak etorri, zenbait egoerari eta aldiri. Horrelakoetan irizpena estuagotuz joan da, eta egoera zehatz-zehatzak eta egunerokoari estekatuak eraiki izan ditu adimen-begiak. Gainera, egunari antz eta traza hartzera ausartu da egutegiaren hilabete eta egun batzuez baliaturik. Badakigu, jakin, igarbide horrek ez daukala zientzia-baliorik, baina euskaldunen aroarekiko ikuskera azaleratzen du berriz ere. Baliteke zizelkatutako egoera hauetan kulturaren eta lexikoaren arteko uztardura ongien islatzea. Aldiez eta igarbideez gain, «nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa» eta «lan-jarduerak egiteko

eguraldi ona» kontzeptuak berezko-berezkoak dira euskaldunon artean. Azpimarraztekoa da «ibiltzeko giro ona» dela eta, han-hemenka, zenbait hizkeratan batu diren hitzak.

5 taula. Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia

Aldiak	Nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa					
Gaueko eguraldi gozoa gaugiro gauatz Gaueko eguraldi txarra gauate	Ibiltzeko bidagi bidegi bidaro ebilaro ibilgiro ona egon f(u)angiro ona	Jateko jangiro	Kanpoan egoteko egotaro freskure	Lo egiteko loaro logiro lotaro	Sutondoan egoteko sugiro egon	
Lan-jarduerak egiteko eguraldi ona				Nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak		
Belarra mozteko bedaro belargiro egon	Ereiteko azegun udaro	Lan egiteko langiro nekagi	Mahatserako masgiro	Urtarrila igarregunak sortelegun zotal(egun)	Abuztua zotal egunek ilegun	Otsaila xino

Oro har, *giro* eta *aro* hitz eta atzizkiak erabiltzen dira kontzeptu gehienetan. Aldiak berbabide, gaua baino ez da aipatzen hitz eratorrietan: batetik, «gaueko eguraldi gozoa», *gaugiro* eta *gauatz*; bestetik, alderantzizkoa, «gaueko eguraldi txarra», *gauate*. Dikotomia horri ederki atxikitzen diote Baztan aldean: *gauatz/gauate*.

«Nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa»-ri dagokionez, gorago aipatu bezala, «ibiltzeko eguraldi aproposa» kontzeptuak dauzka hitz gehien: *giro* edo *aro* osagaiez, *bide* hitzaz eta *ibili* eta *joan* aditzez baliatzen dira hiztunak: batetik, *bida-giro*, *bidegiro*, *ibilgiro ona egon* eta *fuangiro ona*; bestetik, *bidaro* eta *ebilaro*. Gainerakoen artean, denak dira azpimarragarriak kultuari biziki lotuta daude-eta: *jangi*; *egotaro* eta *freskure*; *loaro*, *logiro* eta *lotaro*; *sugiro egon*. Nabarmentzekoa da nolako garrantzia bereganatu duten *aro* eta *giro* izenek, atzizki bihurtzerainokoa.

Eguraldia eta lana, esan gabe doa, lot-lot eginda egon dira antzinatik. Nekazariak etengabe, behin eta berriz so egin behar zioten ortziari eta haizeak dastatu zer-nolako aroa egongo zen lan egiteko: aditu hutsak ziren, eta jakinduria hori heldu da nola edo hala gaurdaino. Hori dela eta, lau kontzeptu garatu izan ditu hiztunen adimen-begiak eguraldiari itxura hartzeko: «belarra mozteko», *bedaro* eta *belargiro egon* esapidea; «ereiteko», *azegun* (ustez, *aza* + *egun*) eta *udaro*; «lan egiteko», *langiro* eta *nekagi*. Ostera ere, *giro* eta *aro* nagusi.

Mahatsa ere ez da libratzen, eta «mahatserako giro egokia» hizpide, *masgiro* hitz eratorria jasota dago gipuzkeraz eta Baztanen (Azkue, 1905-1906/1969). Badirudi giro ona dela mahatsa ontzeko. Bitxia da, baina beste frutarik ez dugu zentzu berean aurkitu: ez **sagargiro*, ez **intxaurgiro*, ez horrelakorik: *mahatsa* baino ez. Horrexek ematen du aditzera norainoko garrantzia daukan giro onak mahats egokia biltzeko.

Azkenik, «nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak» direla eta, adimen begiak zenbait igarbide eraiki ditu han-hemenka, hizkeraz hizkera. Testuingurua zehatzago hautematen da jasotako corpusean.

4.4.1. Aldiak

Gaueko eguraldi gozoa

Gaugiro

gaugiro: «Garai ontan, gaugiro onekin iñor irixten ez dan toki ontara». T. Garbizu. *Euskal Esnalea*, 1925, 211. or. (DRALV).

Gauatz

gauatz: N-Baztan. Gau ederra. «A ze gauatza dagon!» (Izeta, 1996).

Gaueko eguraldi txarra

Gauate

gauate: N-Baztan. Gaualdi txarra. «Olako gauate txarrik eztugu egundeño kusi» (Izeta, 1996).

4.4.2. Nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa

Ibiltzeko

Bide + aro + giro

bidagiro: G-Andoain. DVEF.

bidegiro: L-Ainhua. DVEF.

bidaro: bizkaiera / behe-nafarrera / lapurtera / zuberera. «Bidaro onetan ibiltzen niz aise, bena bidaro gaixtoetan nekez yalgitzen niz etxetik». M. Salaberry. *Vocabulaire* (DRALV). «Bidaro ona edo gaitza izan dedin joan beharko dugu» (Mokoroa, 1990).

Ibili + aro + giro

ebilaro: zuberera (Lhande, 1926).

ibilgiro ona egon: N-Baztan. «Ibilgiro ona baitago ba noaie oiñez etxera, ttapa-ttapa» (Mokoroa, 1990).

Joan + giro

f(u)angiro ona: G-Oñati (Izagirre, 1971).

Jateko

Jangiro

jangiro: goi-nafarrera / gipuzkera / lapurtera (DVEF).

Kanpoan egoteko

Egotaro/Freskura

egotaro: B-Gatika. «Egotaro ona dau» (Gaminde, 1997).

freskure: Gaueko ihintzaren ondorioz, goizeko egotaroa. B-Gatika. «Ibiltaldi goixeko freskuren edo illlundeana yatzi tte ostean edo olan ataraten siren kanpora egunen birriten» (Gaminde, 1997).

Lo egiteko

Lo + aro + giro

loaro / logiro: G-Oñati (Izagirre, 1971).

logiro egon: gipuzkera / lapurtera. «Logiro dago» (Mokoroa, 1990).

lotaro: B-Mundaka. «Lotaro dago gaur» (DVEF).

Sutondoan egoteko

Su + giro

sugiro egon: N-Imotz. «Sugiro dago gaur» (Mokoroa, 1990).

4.4.3. *Lan-jarduerak egiteko eguraldi ona*

Belarra mozteko eguraldi aproposa

Bedaro

Bedaro: zuberera. (S ap. A), *bedao* (A), *bedau*. S ap. Lrq; Foix. (DRALV). «Buen tiempo para cortar la hierba. *Egiin bedao diik, hots bedaka*, hoy hace buen tiempo para cortar hierba, ea a segar» (DVEF).

Belargiro egon

belargiro egon: G-Amezketeta. «Belargiro dago gaur» (Mokoroa, 1990).

Ereiteko egun edo eguraldi egokia

Aza egun

azegun: bizkaiera (DVEF).

Udaro

udaro: (DVEF).

Lan egiteko

Langiro

langiro ederra egon: G-Eibar. «Langiro ederra izan dogu gariak eraintzeko» (Mokoroa, 1990).

Nekagiro

nekagiro: N-Baztan (DVEF).

Mahatserako**Mahats + giro**

masgiro: gipuzkera /N-Baztan (DVEF).

4.5. Nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak

Kultura guztietan urte barruan nolako eguraldia izango den asmatzeko egunak izaten dira, hau da, halako egunetan halako aroa egonez gero, hilabete horretan horrelako eguraldia izango da. Adibidez, urtarrilaren 2an euria bada, otsaila (2. hilabetea) euritsua izango da. Egun bakoitzean egoten den aroa urteko hilabete bati egokitzen zaio. Horrela, abuztuaren 4an eta 16an egon den eguraldia apirilari egotziko zaio. Iberiar penintsulan kontu horrek ere badu tradizio handi samarra: Teruelgo Maestrazgo eskualdeko katalan hizkuntzaren eremuan *tretzenades* deitzen diete, Aragoiko Pirinio aldean *canablas* edo *calandrias*, *cabanyoles* edo *cabanelles* Katalunian eta Balear uharteetan eta *cabañuelas* Gaztela aldean. Beti urteko eguraldiaren zikloaren puntu jakinak hartzen dituzte erreferentziazat *igarregunek* eta *zotal egunek*, eta pitagorismo edo hermetismoaren elementuekin uztar daitekeen zenbaki-oinarria biltzen dute bere baitan; izan ere, egun bat hilabete baten gainean eta hamabi egun urte baten gainean proiektatzea antzinako herri-zientziaren berezko teknika baten zati da, hots, *zikloen antzekotasunean* oinarritzen den herri-ikuspegia.

Jarraian, hiztunen adimen-begiak, han-hemenka Euskal Herrian asmatu dituen metodoen zerrenda eta corpusaren berri ematen da.

Urtarrilaren lehenengo hamabi egunak**Igarregunak**

igarregun: «Urtearen lehenengo amabi egunak dira igarregun auek. Gure asabak uste zuten amabi egun auetako eguraldia izango dala urtearen amabi iletakoa» (Azkue, 1935-1947/1989).

Sortelegun

sortelegun: NB-Beskoitze. «Los habitantes de Beskoitze, y todos los Vascos, por lo general, creían un tiempo que cada uno de los días de este período influía en el tiempo de los doce meses correspondientes. Si el tres de enero hacía buen tiempo, el tercer mes, el de marzo, había de ser muy bueno; si llovía el cinco de enero, tenía que llover el mes de mayo». «Sortelegunak urteko amabi egun lenbizikoak dira ta amabi ilabetetako eguraldia iragartzen omen dute» (Azkue, 1935-1947/1989).

Zotal(egun)

zotal: «Gure arbasoek uste zuten urtarrileko hamabi lehen egunak zotalak zirela, hots, bakotxak aintzinetik salatzen zuela nolako aroa izanen zen berari zoakon ilabetean». Lafitte. *Gure Herria*, 1969, 360. or. (DRALV).

zotalegun: NB-Donibane Garazi / lapurtera / zuberera. «Egun urtarrillaren bia, otsailaren zotale-guna» (DVEF).

zothalegun: behe-nafarrera / L-Bardoze (DVEF).

Abuztuaren lehenengo hamabi egunak: *Zotal*

zotal egunek: N-Baztan. Abuztu hasmentako hamabi egunak. «Zotal egunetan siñeste aundie dugu» (Izeta, 1996).

Abuztuaren lehenengo hogeita lau egunak: *Ilegun*

ilegun: «Igarregun ordeiz ilegun esaten dan tokietan ogei ta lau dirala uste dute, agorrilaren lenengo ogei ta laurak: lenengo ta amairugarrenak urtarrileko eguraldia iragarten dutela, bigarren ta amalaugarrenak otsaila... eta onelaxe beste egunak ere» (Azkue, 1935-1947/1989).

Otsailaren lehenengo hamabi egunak: *Xino*

xino: zaraitzuera. «Zaraitzun erderatiko ele auxe daukate orretarako: xino (signo). Izotzilaren lenbiziko amabi egunak urtearen amabi ilabeteen xinoak tzu (dituzu)» (Azkue, 1935-1947/1989).

5. ONDORIOAK

Lehenengo eta behin, adierazi beharra dago hiztunen adimen-begia denboraz baliatzen dela eguraldia adierazteko: *aro*, *bedaro*, *denbora*, *eguraldi* eta *sasoi* terminoak denboraren alorretik atzeman ditu adimen-begiak begi aurreko beste errealitate baten berri emateko. Izan ere, hizkuntza askotan gertatzen da gauza bera; adibidez, gaztelaniaz eta frantsesez, hitz bera *tiempo/temps* erabiltzen da denbora eta eguraldia izendatzeko; ingelesez eta alemanez, ordea, desberdinak dira, *time/weather* eta *Zeit/Wetter*, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, hiztunak ez dira konformatzen eguraldia bera aipatzearekin, eta nola dagoen eta nolakoa den une jakin batean agertzen dute. Adimen-begiak eraikitako lexikoak egoera askori egiten dio aurre, egokiak zein desagokiak. Zenbaitetan, metaforez baliatzen dira hiztunak: *lodi*, *zarpail*, *zarpail*, *zergel*, *zirtzil*... Ohikoa izaten da eremu semantiko bateko hitzak beste batera ekartzea kontzeptu bat hobeto ulertzeko.

Azpimarratzeko da *eguraldi ona* eta *eguraldi txarra* kontzeptuek biltzen dituztela beren baitan termino gehien. Aroa nolakoa den sumatzen denean, lehenengo hitzetariko bat ona ala txarra den izaten da. Hori dela eta, adimen-begiak hainbat termino zizelkatu ditu bi kontzeptuak aditzera emateko. Hemen ere egunerokoan beste eremu batzuetan erabili ohi diren izenondoak, elkarketak eta esapideak baliatzen dituzte hiztunek adierazkortasuna nabarmentzeko. Zalantzarik gabe, bitxigarriena

trimotor-eguraldia metafora da, aro ezin hobea izendatzeko. Eguraldi gaiztoa aipatzeko, ugari dira izenondoak, biziki arruntak direnak bizitzaren beste arlo batzuetan: *bihurri, desatsegin, eskas, gaizto, gordin, itsusi, kaskar, patal, petral...* Bestalde, azpimarratzekoa da adimen-begiak bi termino eraiki dituela aro gaizto, gordin eta «muturrekoa» izendatzeko: *aldigaizto* eta *arogaitz*.

Jakina, hiztunak ez du aski eguraldiaz mintzatzeko izenak, izenondoak eta hitz elkartuak erabiltzea: mundu magiko bat adierazten du esapideen bitartez, metafora ederrak adimen-begiak eraikitakoak. Lan honetan azaldutako gehienak Mokoroak batutakoak dira (Mokoroa, 1990), baina ziurrenik lagin txiki bat besterik ez da, han-hemenka, barreiatuak ezin konta ahal izango direlako. Aditz hutsak direnean, izenondoekin gertatzen den bezalaxe, hiztunek beste eremu batzuetakoak egokitu dituzte, baina, zenbait kasutan, aroaren beraren inguruko esapideak sortu dituzte; adibidez, *hozberoaren aroak laketu, egungiro txarra ari, goiak zer aurpegi izan...* Esamolde ugari eta oparoak zizelkatu ditu adimen-begiak.

Hiztunek eguraldi orokorra ez ezik oso egoera zehatzak ere aipatzen dituzte aroaren barne-muinetan sartuz gero. Eguneroko kontuak uztartzen dituzte aldiekin eta nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposarekin: sakondu egiten dute aroaren eta gizakiaren arteko harremanean; badakite norainoko eragina daukan aroak eguneroko jardueretan. Errealitate hori islatzen ahalegindu dira, gehienbat, hitz eratorrien bitartez. Hori dela eta, *aro* eta *giro* izenak atzizki bihurrrarazi ditu adimen begiak. Oso emankorrak dira, ezbairik gabe, besteak beste, *gaugiro, bidagiro, ebilaro, egotaro, logiro, bedaro, masgiro...*

Azkenik, tenporetan oinarritutako metodoaz gain, hiztunek beste metodo batzuk ere asmatu dituzte, urtaril, otsail eta abuztu hilabeteak kontuan harturik: urtaril eta abuztuaren lehenengo hamabi egunak, abuztuaren lehenengo hogeita lau egunak, eta otsailaren lehenengo hamabi egunak.

Laburbilduz, hiztunen adimen-begiak sistema oso eta oparoa eraiki du mendeak joan, mendeak etorri, aroaz mintzatzeko. Esan gabe doa: errealitatean eta esperientzian oinarritutako lexikoa garatu du egunerokoan azaltzen zaizkion egoera orori aurre egin eta aditzera emateko.

6. LABURDURAK

DVEF = *Diccionario vasco-español-francés*. Azkue (1905-1906/1969).

DRALV = *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca* (= Akesolo et al. 1991).

EH = *Euskaltzaindiaren hiztegia*.

EHHA = *Euskararen herri hizkeren atlasa*. Euskaltzaindia (2008).

OEH = *Orotariko euskal hiztegia*. Mitxelena & Sarasola (1987 – 2005).

Herrialdeak: A (Araba); B (Bizkaia); G (Gipuzkoa); N (Nafarroa); NB (Nafarroa Beherea); L (Lapurdia); Z (Zuberoa).

7. ERREFERENTZIAK

- Akesolo, L., de La Sota, M. & Lafitte, P. (1991). *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca (DRALV)*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azkue, R.M. (1905-1906/1969). *Diccionario vasco-español-francés (DVEF)*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azkue, R.M. (1969/1923-1925). *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azkue, R.M. (1989/1935-1947). *Euskalerraren yakintza*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe.
- Barthes, R. (1971). *Elementos de semiología*. Alberto Corazón editor.
- Casado Velarde, M. (1988). *Lenguaje y cultura: la etnolingüística*. Síntesis. <https://doi.org/10.15581/009.24.31092>
- Coseriu, E. (1977). Introducción al estudio estructural del léxico. In *Principios de semántica estructural* (87.-142. or.). Gredos.
- Diéguez, K. (2021). *Euskal lexiko meteorologikoaren azterketa*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/53666>
- Diéguez, K. (2022). Euskal lexiko meteorologikoaren azterketa: kultura eta kognizioa. *ASJU*, 56(1), 271-299. <https://doi.org/10.1387/asju.23359>
- Diéguez, K. (2024). Urtaroak: ikuspegi etnolinguistikoa. *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69(2), 93-122. <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.287>
- Estornes, B. (1997). *Erronkariko uskararen hiztegia*. Nafarroako Gobernua.
- Euskaltzaindia. (2008). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): I. lib. Lexikoa*. Euskaltzaindia.
- Gaminde, I. (1990). *Zamudio barbarik berba*. Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Gaminde, I. (1997). *Gatikako euskaraz*. Gatikako Gogoz Euskara Taldea.
- Gaminde, I. (1999). *Bakio barbarik berba*. Bakioko udala.
- Gaminde, I. (2001). *Leioa barbarik berba*. Leioako Udala.
- Gaminde, I. (2002). *Jatabe barbarik berba*. Maruri-Jatabeko udala.
- Garate, G. (1998). *Erdarakadak*. Mensajero.
- Plazagunea. (2012). *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Ibarretxe-Antuñano, I. & Valenzuela, J. (2021). *Lenguaje y cognición*. Síntesis.
- Iribarren, J.M. (1952). *Vocabulario navarro*. Diario de Navarra.
- Izagirre, C. (1971). *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* (Luis Villasanteren edizioa). *ASJU*, 4, 3-248. <https://doi.org/10.1387/asju.8575>
- Izeta, M. (1996). *Baztango hiztegia*. Nafarroako Gobernua.
- Jakobson, R. (1963). *Essais de linguistique générale*. Editions de Minuit.
- Landa, J. (2004). GARA egunkariaren eguneroko eguraldi-iragarpenak. (Jatorrizko obra 2003an argitaratua)
- Labayru Ikastegia. (2004). *Labayru Hiztegia*. Bilbo. <https://hiztegia.labayru.eus/>
- Lhande, P. (1926). *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque (dialectes labourdin, bas-navarra et souletin)*. Gabriel Beauchesne.
- Lekeitioko lantaldea (Altzibar, K., Korrea, M., Laka, J., Ogando, N., Portillo, N., Retolaza, A., Seijo, J.M. & Seijo, J.A.). (2001). *Lekeitioko berbak 2*. Lekeitioko Udala.
- Maiz, E. & Mundiñano, I. (1998). *Etxarrieratik sakanerara*. Nafarroako Gobernua.

- Martin Camacho, J.C. (2016). Hacia una caracterización de una disciplina lingüística (casi) olvidada: la etnolingüística. *ELUA Estudios de Lingüística Universidad de Alicante*, 30, 181. <https://doi.org/10.14198/elua2016.30.09>
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987 – 2005). *Orotariko euskal hiztegia / Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia.
- Morant Marco, R. & Díaz Rojo J.A. (2005). Etnolingüística. In *Temarios de Humanidades: Lingüística general*. <https://www.liceus.com/producto/etnolingustica>
- Mokoroa, J. (1990). *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Labayru Ikastegia.
- Ortiz-Osés, A. & Garagalza, L. (2006). *Euskal mitologia (izena duen guztia omen da)*. Gipuzkoako Kutxa.
- Palmer, G.B. (2000). *Lingüística cultural* (itzul. E. Bernárdez). Alianza Editorial.
- Sarasua, A. & Basauri, S. (2003). *Eibarko hiztegi etnografikoa*. Eibarko Udala.
- Sapir, E. (1962/1921). *Language*. Harcourt, Brace & World. (Jatorrizko obra 1921ean argitaratua)
- Velasco Maillo, H.M. (2003). *Hablar y pensar, tareas culturales: temas de antropología lingüística y antropología cognitiva*. UNED.
- Whorf, B.L. (2011). *Language, thought and reality: Selected writings of Benjamin Lee Whorf*. John B. Carroll. Cambridge, Mass., MIT Press. (Jatorrizko obra 1956an argitaratua)